

4 EURO • 2013KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

hh
hik hasi

180



XIV. HIK HASI UDAKO TOPAKETA PEDAGOGIKOAK

GAIA: ELKARREKIN PENTSATU, SENTITU ETA BIZI • ELKARRIZKETA:

BLANCA OLALDE • EKARPENAK • GALDEIDAZUE: JOXE RAMON MAUDUIT •

• ATZEKO ATETIK: MIRARI BEREZIARTUA

OPORRETAKO KOADERNOAK


Udan ondo pasatzen jarraitu



Ikaelkar

www.ikaelkar.com

aurkibidea



10
gaia

HAUR FILOSOFIA

Pentsamendua era kritikoa eta sortzailean garatzeko lagunduko diguten trebetasunen berri emango du Miren Camison Haur Filosofiako irakasleak Topaketetan. Elkarrekin hobeto pentsatzen dugula erakutsiko digu. Horretarako, elkarrizketa dugu tresna garrantzitsu bat, ondokoari entzunez eta galdera sakanak eginez, errespetuzko eta maitasunezko testuinguru batean garatzen den elkarrizketa.



16
elkarrizketa

BLANCA OLALDE

Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean, baloratzea eta gauza positibotzat hartu behar dela dio Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako Irakasleak. Horretarako, etereotipoen jabetu eta horiek gainditzea beharrezko jotzen du. "Hemen jaiotakoekin zein kanpoan jaiotakoekin artean daude ikasle onak eta txarrak. Beraz, ez dago loturarik, guk sortzen dugu lotura hori".

5 editoriala

6 hizpide izan da **8** hizpide izango da

10 gaia ELKARRIZKETAREN BIDEZ PENTSAMENDUA GARATZEN. MIREN CAMISON GOIENETXEA

16 elkarrizketa

BLANCA OLALDE LOPEZ DE ARETXABAETA

23 hainbat ikastaro

22 AMETSAK ETA ENTRENAMENDU MENTALA. URKO AROZENA

24 ESPRESIO TAILERRA. JASONE IRIGOIEN

26 PIKLER-LOCZYKO HEZITZAILEA. ELENA HERRAN

28 ESKOLAKO BIZIPENAK ETA EUSKARA. GIPUZKOAKO URTXINTXA

29 'KAMISHIBAI' TAILERRA. IXABEL MILLET

30 BIDEOA: PINNACLE STUDIO. PELAIO EIZAGIRRE

32 KRISIALDIRAKO PLASTIKA TAILERRA. ALAZNE UGARTETXEA

34 BESTEAK SENDATZEKO AHALMENA. IBON DE LA CRUZ

34 PSIKOMOTRIZITATEA. ALVARO BEÑARAN

35 EGUNEROKO GATAZKEI NOLA ERANTZUN BORTIZKERIARIK GABE?. NEREA MENDIZABAL

36 YOGA ETA KONTZENTRAZIO-TEKNIKAK. MARINA PINTOS

36 ETXERAKO LANAK GURE ESKOLETAN. JOXE AMIAMA

34 AHOTSAREN ERABILERA EGOKIA. MIRARI PEREZ GAZTELU

38 galdeidazue

Bizitzako lehen uneetako masajeak nola lagun diezaioke haurrari ondoezak prebenitzen? JOXE RAMON MAUDUIT

42 Atzeko atetik MIRARI BEREZIARTUA AROTZENA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf'k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Jasone Irigoien. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-06-20). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta argitararaten
ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

uztaila

Hezkuntzaren kalitatea hobetuko bada, irakasleen formazioan inbertitzea ezinbesteko da



Argi dago etengabeko formazioa ezinbestekoa dela irakasleen lanbidean. Irakasleak erronka zaharrei eta berriei erantzuteko gai izan behar du, eskola-komunitatearen eta gizarte hurbilaren laguntzarekin. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da irakasleen formazioan inbertitzea

Ikasteko gogoz, formatzeko premiaz. Hausnartu, partekatu, galdetu, zalantzan jarri, entzun, ikasi, ikusi, pentsatu, esan, ukitu, sentitu eta bizitzeko prest, desiraz eta beharrez daude Euskal Herriko irakasle asko eta asko. Aurten ere gogotsu etorriko dira euren oporretako lehen egunetan **hik hasi**ren Udako Topaketa pedagogikoetara, uztailaren, 3, 4 eta 5ean.

Haur txikienei, LHkoei, nahiz DBHko-
ei euren garapenean eta ikasketa-prozesuan laguntzeko gero eta exigentzia gehiago dituzte hezitzaile eta irakasleek. Blanca Olalde EHUko irakasleak barruko elkarrizketan dioten bezala, gero eta anitzagoa delako Euskal Herriko ikasleria. Baina baita irakasle eta hezitzaileak ere gero eta formatuago daudelako, eta ez direlako gauzak “egitearekin” soilik konformatzen, “ondo” egin nahi dituzte gauzak. Bai 0-3an, zaintza lanetatik hasten baita heziketa (Elena Herranek ekarpenetan dioten bezala), eta baita nerabezaroran ere, eskolan ditugun gazte horiek “nor

naiz ni mundu honetan?” galderari erantzun nahian dabiltzanean (Miren Camisonekin landuriko gai nagusian planteatzen den gisan).

Ez da erraza izan aurtengo jardunaldi pedagogikoak antolatzea. Ez soilik gorabehera ekonomikoengatik (dakizuen bezala, matrikularen prezioa jaitsi dugu, bizitzan ari garen egoera ekonomikoa kontuan izanik, hezitzaileen parte-hartzea errazteko), baita giza baliabideen aldetik ere. Topaketen atzean dagoen izen-emate eta administrazio lan mardula egiten zuen lankidea falta izan zaigu aurtengoan, otsailean hil baitzen Arantza Goiburua. Aurten ez dugu Arantza mahaiaren beste aldean izango galderari erantzuteko, argibideak emateko, azken uneko arazoak konpontzeko. Bihoaz topaketa hauek haren oroimenean.

Baina bizitzak aurrera darrai, eta **hik hasi**-k ere bai. Topaketen ostean, 0-3ko formazio berri batekin abiatuko du egitasmo pedagogiko honek ikasturte berria. Pikler

eta Malaguziren jakintzetan oinarriturik, Euskal Herriko eta atzerriko adituek bi urteko prestakuntza sakona eskainiko diete hezitzaileei. Egarriz baitaude etapa honetako profesionalak. Euren lanean hobetzeko beharrez, egunero haur txikiakin lanean sortzen zaizkien galderari erantzuteko nahiarekin, familia eta eskolaren arteko zubilanak errazteko premiaz eta galdera berriak egiteko desiraz. Interesaren erakusle, berrogei plazako prestakuntzarako ia boskoiztu egin da matrikulatuen kopurua.

Argi dago etengabeko formazioa ezinbestekoa dela irakaslearen lanbidean. Hezkuntzaren kalitatea hobetuko bada, irakasleak erronka zaharrei eta berriei erantzuteko gai izan behar du, bere burua jantziz eta prestatuz, eskola-komunitatearen eta gizarte hurbilaren laguntzarekin. Horregatik, beharrezkoa da irakasleen formazioan inbertitzea, gizarteak aurrera egin dezan hezkuntza baita inbertsiorik emankorrena, hala giza balioetan nola ekonomikoetan ere.

hizpide



Iparraldeko ikastolen geroa bermatzeko lege bat eskatu dute Seaskak eta milaka manifestarik, Baionan

Baionako suprefetak diruz lagundua izateko baimena ukatu dio bigarren aldiz Hendaiako ikastolari, eta erabaki horren kontrako manifestazioa egin zuten ekainaren 22an Baionan. Hiru mila lagunek hartu zuten parte Seaskak deitutako mobilizazioan, eta ikastolen geroa bermatzeko lege bat exijitu zuten.

Hendaiako Herriko Etxeak onartutako ikastola berriaren xedearen aurka egin du bigarren aldiz Patrick Dallennes Baionako suprefetak. Falloux legea oinarri harturik, Hendaiako ikastola berria egin ahal izateko diru publikoa ezin dela baliatu jakinarazi die Seaskari eta Hendaiako Herriko Etxeari. Hendaiako 180 familia eta 250 haur daude zuzenean erabaki horren jomugan, baina suprefeturaren erabakiak ikastola guztiak arriskuan ezartzen dituela dio Seaskak.

Manifestazioaren amaieran Frantziako Gobernuari zuzendutako gutuna suprefe-

turaren aurrean irakurtzeko asmoa zuten Seaskako arduradunek, baina Poliziak eragotzi zien. Gutunaren hasiera honako hau zen: «Lehendakari jauna, ez dakizu seguru aski zer erran nahi duen hitza hitz erranak, hitz emandakoa bete behar dela adierazten du. Hizkuntza gutxituen Europako karta izenpetuko duzula hitz eman duzu (...), hitzemandakoa, kanpainako zure promesa gauzatzea eskatzen dizugu». Hendaiako eta orokorki murgiltze-ereduan dabilzan Euskal Herriko, Britainiako, Okzitaniako, Kataluniako eta Alsaziako eskolen egoera legalki bermatzeko tresnak daudela oroitarazten dio ikastolen federazioak Frantziako Gobernuari. Hain zuzen, orain arte legea kontra baldin badute ere, isileko akordio baten bidez, egitura publikoak dabilza eskola horiek finantzatzen. Soluzio gisa, publiko-elkarte partaidetza bermatzeko lege bat sortzea gomendatzen dio.

A eredia gainditzearen alde dago Uriarte, baina “hizkuntza aukeratzeko askatasuna” eskatu du Eusko Legebiltzarrak

Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak A eredia gainditzeko gogoeta eskatu die ikastetxeei. Uriarteren iritziz, eredu horrek aukera berdintasuna ukatzen die ikasleei eta euskara eta gaztelaniaren ezagutza “eskasa” izatea ekartzen du. Hezkuntza ereduak berrikusteko asmoa azaldu zuen Uriartek, eta bereziki A eredia gainditzeko “pauso eraginkorrak” eman behar direla azpimarratu zuen.

A ereduaren gainditzea egungo araudia errespetatuz egiteko asmoa agertu zuen Uriartek, hortaz, hezkuntza ereduak ezartzen dituzten legeak bere horretan mantenduko ditu, A ereduaren barruan euskara gehiago erabiltzeko aukera ematen dutelako. Izan ere, Euskara eta Euskal Literaturaz gain, beste irakasgai batzuk hizkuntza horretan emateko eskumena dute ikastetxeek, eta haien “errealitatearen” arabera esku-men hori baliatzeko eskatu die.

Aldiz, Eusko Legebiltzarrean, UP-Dren legez besteko proposamen baten erdibideko zuzenketa adostu dute EAJk, PSE-EEK eta PPk. Horren ondorioz, euskal hezkuntzan hizkuntza aukeratzeko “benetako askatasuna” bermatzeko eskatu dio Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari. Hala-ber, euskarak eta gaztelaniak irakats-hizkuntzak izaten jarrituko ahal izatea bermatzeko eskatu dio, eta ahalbidetzeko ingelesa hezkuntza sisteman era progresiboan sartzen joatea.

izan da



Erlijioaren ordezeko ikasgaian, “terrorismoaren biktimen balioak” sartzeko asmoa du Espainiako Gobernuak

Barne Ministerioak Hezkuntza Ministerioari egindako proposamena onartu eta, erlijioaren ordezeko ikasgaian, “terrorismoaren biktimei” leku egiteko asmoa du Espainiako Gobernuak. “Biktimen balioak” irakastea izango litzateke PPK, hezkuntza erreformaren bidez, 2013-14 ikasturterako egin nahi duen aldaketaren helburua. ETArek biktimak biltzen dituzten elkarteak aintzat hartuko litzukete curriculum lantzerakoan, eta edukiak zehazteko lantalde bat jarri du martxan dagoeneko Espainiako Gobernuak. “Biktimek defendatzen dituzten balioen testigantzak gazteen eskolako liburuetan egotea nahi dugu”, adierazi zuen Espainiako Gobernuaren ordezkari batek ekainean Madrilen egindako jardunaldi batzuetan.

Erlijioarekin bezala, ikasgai hori derri gorrez eskaini beharko dute eskoletan, baina aukeratu edo ez gurasoek erabakiko

dute. Batxilergoa da salbuespena, erlijioa hautazkoa baita, eta ez du ordezkorik. Batz bestekoak egitean, kontuan hartuko dituzte Balio Soziala eta Zibikoak eta Balio Etikoak

Erljioa eskola ordutegitik ateratzea proposatu du Eskola Kontseiluak

Ikastetxeei erlijioa eskola ordutegitik kanpo uzteko aukera eman diezaiela eskatu dio Euskadiko Eskola Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari. Bi arrazoi eman ditu horretarako: erlijioaren ikasgaia gero eta ikasle gutxiagok eskatzen dutela, eta curriculum lantzeko denbora urria dutela bestela ere eskoletan. Hortaz, proposatu du beste ikasgaiak amaitzean edo eguerdiko tartean ematea ikasgai hori hala nahi duten ikasleei. Eskola Kontseiluaren proposamena kontrako botorik gabe onartu zuten.

Bekak lortzeko nota 5,5etik 6,5era igo nahi du Espainiako Hezkuntza ministroak

Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak unibertsitateko bekak lortzeko nota puntu bat igo nahi du, 5,5etik 6,5era. “Ahaleginaren kultura” indartu nahi du ministroak erabaki horren bidez. Asmoak kontrako erreakzio ugari piztu du, tartean autonomia erkidegoetako sailburu gehienena. Horrelako erabaki batek eskola uztearen hazkuntzean eragina izan dezakeela ohartarazi diote Wert. Hori dela eta, aldaketa berriz aztertzeko prest azaldu da Espainiako ministroa. Hala ere, nota hori eskatzea “ez da gehiegizkoa”, haren ustez. “6,5 puntuko nota ateratzeko gai ez den ikasleak beste zerbait ikasi beharko luke”, adierazi du.

Bigarren aldia da Wert ministroak bekak jasotzeko baldintzak gogortzen dituela. Iaz ere hala egin zuen, eta horren ondorioz 18.840 ikasle gutxiagok jaso dute ikasketarako laguntza.

Euskal Autonomia Elkarteak unibertsitate gaineko eskumena duenez, Wertek erabakiak ez dio eragiten. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ere kritikak jaso ditu beken kontura. EHUko Ikasleen Kontseiluak azaldu duenez, unibertsitateko mila bat ikasle geratu dira laguntzarik jaso gabe, Eusko Jaurlaritzak egindako aldaketen ondorioz. Nota altuagoak eskatu ditu eta 500 beka gutxiago eman ditu, nahiz eta ikasle gehiago bete jasotzeko baldintza ekonomikoak. Nafarroan ordea, bai, Wertek aldaketak eragina izango luke.

hizpide



Berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistari aurrea hartzeko plana egin du Eusko Jaurlaritzak

Nesken eta mutilen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko plan estrategikoaren zirriborroa aurkeztu du du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Planak bere egin ditu EAEko Berdintasunerako Legean adierazitako ardatzak eta helburuak: genero indarkeriari aurre hartzea, berdintasunezko harremanak garatzea, aurreiritzi eta rol sexistak desagerraraztea, emakumeen ekarpen sozialak eta kulturalak curriculumean txertatzea, sexu joera guztiekiko errespetua zabaltzea, erantzukidetasuna bultzatzea eta generoak baldintzatu gabeko ibilbide akademikoak hautatzen laguntzea. Eskoletan berdintasunari lotutako karguak sortzea proposatzen du planak, zehazki, ikastetxe guztietan hezkidetzaren arduradun bat izendatzea, zentroetako eskola kontseiluetan berdintasun ordezkari bat izendatzea, eta hezkuntza komunitateko eragile guztiak bilduko dituen berdintasun batzorde bat sortzea.

Udan eragileek egindako ekarpenekin egitasmoa osatu ondoren, behin betiko egitasmoa urriaren bukaeran aurkeztu nahi du Jaurlaritzak. Hala ere, neurrietako batzuk datorren ikasturtean jarri ahal izango dituzte. Horretarako, trebakuntza emango diete, irailetik aurrera, irakasleei: hamar orduko modulua. Urtero 50 ikastetxeri irekiko diete trebakuntzarako deialdia, eta beste hamarri “hezkidetzaren proiektu integralak” garatzeko laguntza emango diete.

Gazteen arteko indarkeria matxistan jarriko du planak arretagune nagusietako bat. Bortizkeriari aurrea hartzea ezezki, indarkeria egoera “ahalik eta azkarren detektatzea eta erantzutea” izango da lehentasuna.

Bestalde, bortizkeria matxistaren biktimek ikasgeletan testigantzak emateko aukera alboratu egin du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Emakunek aurkeztutako planak. Biktimaren perfila mugatu edo desitxuratu nahi ez dutela azaldu du Cristina Uriarte sailburua. “Ikasleek pentsa dezakete 50 urteko andreei bakarri gertatzen zaiela indarkeria hori”.

ICANNek onartua izan ondoren, 2014n hasiko da ‘.eus’ domeinua erabiltzen euskal web orrietan

Euskarak eta euskal kulturak munduaren aurrean ikusgarriagoak izateko beste tresna bat izango dute aurki Interneten: *.eus* domeinua. Interneteko domeinuak arautzen dituen ICANN erakundeak oniritzia eman dio PuntuEus fundazioaren eskariari, eta ondorioz, lehen mailako domeinu orokorra izango da *.eus*, hizkuntza eta kulturaren atalekoa.

“Prozesua ez da hemen bukatu. Alderantziz, *.eus* domeinuaren benetako ibilbidea oraintxe hasi da”, adierazi du PuntuEus fundazioak. Ia beste urtebete beharko da webguneak *.eus* domeinuarekin erregistratzen hasteko (2014ko apirilean izatea espero dute). Interneten euskara eta euskal kultura sustatzea du helburu *.eus* domeinuak, hortaz, helburu horren lorpenean laguntzen duten webguneek soilik erabili ahal izango dute domeinua, baina horrek ez du esan nahi osorik euskaraz izan beharko dutenik. “Ez dugu %100 euskaraz izaterik eskatuko, gure errealitate soziolinguistikoa kontuan hartu behar dugulako. Webgunea edozein hizkuntzan egon daiteke, baina euskarazko bertsioa eduki beharko du, eta denborarekin garatzen joan behar du”, azaldu du Iratxe Esnaola fundazioko kideak. Halaber, euskal kultura jorratzen duten baina euskarazko bertsiorik ez duten webguneek ere lekua edukiko dute.

“Euskararen herriaren nazioarteko aitortpena da *.eus* domeinua”, Joan Mari Torrealdairen iritziz, “komunitatearen garapen lokalerako tresna global bat”.

izango da

Werten erreformaren aurkako eta sistema propioaren aldeko manifestazioa deitu dute urriaren 12an



Hezkuntzako bederatzi eragilek urriaren 12an, Hispanitatearen Egunean, Bilbon “herri mobilizazio nazional erraldoia” egiteko deialdia egin dute. Ikastolen Elkar-
teak, Sortzen Ikasbatuaz-ek, EILASEk, LABek, ELAk, UEUk, Ikasle Abertzaleek, Hik Hasi-k eta NIZEk egin dute deialdia, *Euskal Herriari gure hezkuntza erabiltzei LOMCEri ez! Inposaketeei ez!* lelopean.

Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreformari ezetz esateaz gain, Euskal Herri-
tik hezkuntza sistema propioa osatzen hasteko konpromezua hartu dute bederatzi eragile hauek agiri bateratu batean. Horixe da, hain zuzen ere, hezkuntza eragileek aurretik kaleratu dituzten agiriekiko ezberdintasun handiena: “Inposaketei erantzutetik harago, Euskal Herriari gure hezkuntza sistema propioa eraikitzeke urratsetan aurrera egitea dagokigu”, adierazi dute. Euskal eragile gehienek (guraso elkar-
teak, sindikatuak, ikasle taldeak, irakasleen elkar-
teak...) agertu dute Werten legearekiko ezadostasuna, baina beste pauso bat emateko garaia

delu uste dute manifestazioaren bultzatzaileek: “Gure herriak nahi eta behar duen hezkuntza sistema propioaren inguruan eztabaida egin eta eraikitzeke bidean urrats berri eta atzeraezinak ematea guztiz beharrezko dugu”, azaldu dute agirian. Aurrez adostasuna lortu duten proposamenetan sakontzea aipatu dute lehenurrats gisa: aukera berdintasuna eta kalitatea bultzatzea, Euskal Herriko curriculum-a sustatzea, hezkuntzan murgiltze eredu orokorra babestea, Kontseiluak ondutako proposamenaren ildotik, eta herritarren eta eragileen parte-hartzea bermatzea.

Horiek lortzeko beharrezkoa den lege esparrua sortzeko, eta erreforma ez ezartzeko eskaera egin diete Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari. Erreforma ez ezartzeko estrategia komuna landuko dutela adierazi dute eragileok, eta sistema propioaren aldeko bidea “bururaino” eramateko asmoa berretsi dute bederatzi eragileok.

Gatazkak konpontzen laguntzeko jolasa sortu dute, ‘Zutani’

Gatazkak konpontzen laguntzeko ‘Zutani’ jolas pedagogikoa sordu du Nerea Mendizabal psikopedagogoak. “Elkarrenganako ulermena lantzea du helburu ‘Zutani’-k”, azaldu du. Sentimendu eta beharretatik abiatuta irtenbidea aurkitzera bideratzen ditu jolaskideak. Jolasean bakarka, binaka eta lauko taldean aritzeko aukera ematen du ‘Zutani’-k.

‘Familia eta eskola’ jardunaldiak antolatuko ditu ‘hik hasi’-k urrian

‘hik hasi’-k ‘Familia eta eskola’ jardunaldiak antolatuko ditu, urriaren 18an Durangon eta 19an Donostian. Myrtha Chokler izango da jardunaldietako hizlari nagusia, eta besteak beste, harreman pertsonalak heziketa zentroan, hezitzaileen eta familien arteko harremanak, eta, haurren garapen osorako, harremanetan kontuan hartu beharrekoak aztertuko ditu.

GAIA

Elkarrekin pentsatu, sentitu eta bizi

Elkarrizketaren bidez, pentsamendua garatzen



Miren Camison Haur Filosofiako irakasleak ikastaroa emango du hik hasi-ren Udako Topaketetan.



Elkarrekin hobeto pentsatzen dugu. Maxima horretatik abiatzen da Haur Filosofia. Taldean pentsatzeko, elkarriketa dugu tresna garrantzitsu bat, ondokoari entzunez eta galdera sakonak eginez, errespetuzko eta maitasunezko testuinguru batean garatzen den elkarriketa. Pentsamendua era kritikoa eta sortzailean garatzeko lagunduko diguten trebetasunen berri emango du Miren Camison Haur Filosofiako irakasleak hik hasi-ren Udako Topaketetan. Eztabaidaren eta negoziazioaren kulturaren ordezkariak —irabazleak eta galtzaileak sortzen dituen kulturaren ordezkariak— elkarriketaren kultura zabaltzeko nahi du Camisonek.

- Zergatik denbora astiroago iragaiten da batzuetan?

- Nora joan zen aitona hil zenean?

- Aitak ona izateko esaten didanean, zer esan nahi dit?

Akaso goiko horiek ez ote dira galdera filosofikoak? Haurrek, haur txikiak, eginiko galderak dira hirurak —egin ohi dituztenak—. Itau horiek filosofoek beti eta gaur arte egin izan dituzten galderen oso antzekoak direla ohartu zen Matthew Lipman AEBetako Montclair Unibertsitateko irakaslea. Galdera horiei entzungor egin barik, edota irakasleak berak erantzun barik, haurren artean erantzun zitzaten laga zuen, galderari galdera josten, eta erantzun bilatzeko ahaleginarekin arrazoimena lantzen. Elkarriketa horiek Lipmanek geroago garatu zuen Haur Filosofia proiektuaren zutabeetako bat izan ziren.

60ko hamarkadan abiatu zuen Matthew Lipmanek Haur Filosofia proiektua. Garai hartan, Lipman oso arduratua zegoen Vietnamgo gerrarekin, eta gailentzen ari zen biolentziarekin eta inperialismoaren hedadurarekin. “Zer egin dezakegu mundua hobetzeko?”, galdetu zion bere buruari Lipmanek, eta hezkuntza jarri zuen jomuga: “Haurrak —haur txikiak— egian, justizian eta askatasunean hezten baditugu, orduan bai, aldatu ahal izango dugu mundua hobera”. Curriculum bat osatu zuen Lipmanek eta elkarriketa proposatu zuen me-

todologia eta balio gisa. “Euren kabuz pentsatzen duten pertsona helduak nahi baditugu, euren kabuz pentsatzeko gai diren haurrak hezi behar ditugu”, zioen Lipmanek. Filosofiaren ohiko gaien inguruan, beraz, proiektu pedagogiko zabal bat sortu zuten Lipmanek eta bere kolaboratzaile Ann Sharp-ek, haurrei euren ikerketa, behaketa, sormen, interpretazio eta analisisirako gaitasunak etaparik etapa garatzen lagunduko ziena.

“Vietnamgo gerraren garaitik gaur egunera, gauzek hobera egin al dute?”. Miren Camisonen galdera da. Gaur eguneko bortizkeria-maila ikusirik, Lipmanen ideiak eta egitasmoa behar-beharrezkoak direla uste du Camisonek. “Munduak hankaz gora jarraitzen du, izugarriko bortikeriarekin; egoera hobetzeko elkarriketaren kultura sustatzea oso interesgarria izango litzateke”.

Hik Hasi-ren topaketetan Lipmanen ideiak testuinguruko abiapuntu gisa harturik, elkarriketa filosofikoaren garrantzia, baliabideak eta testuingurua azalduko ditu Camisonek, elkarriketa eta komunikazio enpatikoa ezinbestekotzat jotzen baititu umeek eta gazteek pentsamendu kritiko eta sortzailea eraiki ahal izateko. Matthew Lipmanez gain, haur filosofia landu duten autoren artean Oscar Brenifer, Brigitte Labbe eta Michel Onfray aipatzen ditu Camisonek.



Matthew Lipman izan zen Haur Filosofiaren sortzailea. “Euren kabuz pentsatzen duten pertsona helduak nahi baditugu, euren kabuz pentsatzeko gai diren haurrak hezi behar ditugu”, zioen Lipmanek.

G

Haur Filosofia

“Elkarrekin hobeto pentsatzen da”

Zabaldurik dago pentsamendua norberak, bakar-bakarrik, garatzen duelako us-tea, baina Miren Camison Haur Filosofiako irakasleak argi du hobeto pentsatzen dela taldean: “Besteek zuk ez daukazun ikuspuntuak eta bizipenak dituzte, eta horrek aberastu egiten du norberaren pentsamendua; eta, gainera, erronka handia da aniztasun horren aurrean norbere ideiak azaltzea, modu argian, kontraesanik gabe eta errespetuz eta bortizkeriarik gabe”. Taldean besteekin pentsatzeko, komunikatzeko, ikeritzeko eta sentitzeko bide ematen du elkarriketak.

Paulo Freirek (Brasil, 1921-1997) “personen arteko maitasunezko elkargune” gisa definitu zuen elkarriketa. Solasaldi horrek baditu hainbat ezaugarri, Camisonek dioenez: “Ez da eztabaida bat, ez da negoziazio bat, ez dago irabazlerik eta galtzailearik; inork ez du bere arrazoia inposatzen”. Matthew Lipmanek ere elkarriketa “elkargune” gisa ulertzen zuen, eta hezkuntzan elkarriketa filosofikoen garrantzia handia izan zezaketela ikusi zuen; Lipman eta Freirez gain, elkarriketa baliabide gisa landu duten autoreen artean, David Bohm zientzilaria fisikaria aipatzen du Camisonek. Elkarriketa filosofiaren alderdi praktikoa da, eta elkar ulertzea eta ezagutzea du helburu.

Elkarriketa bizipenetan eta esperientzian oinarritu ahal izateko, haurrak solasean jarri aurretik, jolasak, ipuinak edota artelanak proposatzen zaizkie, ondoren, bizipen horien gainean, elkarriketa planteatu ahalizateko. Txikienekin jolasak berebiziko garrantzia du, eta jolastu ere “pentsatzera” jolasten dira. Handiagoekin, jolasaz gain, testuak sartzen dira: testu bat irakurtzen da, adibidez, edo irakasleak ipuin edo gertakizun bat kontatzen du, edo artelan bat ikus-



Miren Camison Goienetxea.

ten, musika pieza bat entzuten... Esperientzia hori bizi ondoren, borobilean elkartu eta hitz egingo dute bizi izandakoaz. Beti ere, errespetuz eta elkar entzuteko konpromisoarekin. Elkarriketaren ondoren beste ekintza batzuk egin litezke gaian sakontzeko, izan gorputz-ekintzak, edo bestelako jarduera ludiko batzuk.

Elkarriketaren kontestu egokia

Elkarriketarekin pentsamendu kritikoa eta sortzailea lantzen dira, baldin eta testuinguru egoki batean garatzen baldin bada. Elkarriketan parte hartzen duten haur guztiak —eta irakaslea edo hezitzailea—

borobilean esertzen dira, eta berdintasunezko erlazio bat sortu behar dute elkarrekin solastatzeko. “Maitasunaren puntu etikoa oso garrantzitsua da elkarriketan harremantzeko. Konfiantza, apaltasuna, errespetua eta maitasuna dira elkarriketako hitz gakoak”, Camisonek azaldu duenez.

Elkarriketa filosofikoaren metodologiak, halaber, gela eta eskola testuinguru zurrinak ez izatea eskatzen du; gela ikerketakomunitate gisa planteatzen du metodologija honek. Camisonek, ordea, gaur egungo hezkuntza-sistema, oro har, zurrin ikusten du, “umeak, berez, ikerlari eta esperimentatzaile sutsuak dira, eta pentsamenduaren

Irakaslea, prozesuak erraztuko dituen

Matematika orduetatik soin-heziketara, elkarrizketaren metodologia ikasgai guztietan erabil daiteke, pentsamendua garatzen laguntzen baitu. Zeharkako lan tresna bat da, edukiak ulerturik eta metodologia barneraturik edozein momentutan erabil daitekeena. Alabaina, elkarrizketaren pedagogiak edukiak beste modu batera lantzea eskatuko luke, haurrari hitza eta espazioa ematea eskatzen baitu, Miren Camisonen arabera: “Irakaslea ez litzateke edukiak ematen dituen izango; eta ikaslea ez litzateke eduki horiek zurrupatu eta gero, ebaluaketa batean irakasle-ari bueltatuko lizkiokeena izango. Hor ez baitago hausnarketarik”. Elkarrizketaren bidez, irakasgai guztietan pentsamendu kritikoa eta sortzailea landuko litzateke, haurraren erritmoen eta interesen arabera. “Ikaslea memorizatzerara behartzen dugunean, ulertzeko eta pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzeko aukerarik ematen ez diogunean, eta bere erritmoa eta interesak errespetatzen ez ditugunean, bortizkeriaren hazia ereiten ari gara”.

Irakasleak elkarrizketaren pedagogian erreztalearen rola izango du, ez gidariarena. Prozesuak erraztea izango da haren egitekoa. Izan ere, elkarrizketa filosofikoak ez du hierarkiarik onartzen, berdintasuna bermatu behar baitu. Horregatik, Camisonek dio hezkuntza-sistemak ezartzen duen bertikaltasunak ez daukala lekurik elkarrizketan: “Irakasleak apaltasunez elkarrizketa erraztu behar du, ez da gidaria izango, baizik eta prozesua errazten duen pertsona bat”. Irakaslea ez da ikasketa-prozesuko protagonista izango, Haur Filosofiak umeari aitortzen baitio konexioak egitea eta norbere bizitzako —eta ikasketa-prozesuko— protagonista izatea. Horrek, berriro ere, gaur egungo hezkuntza-sistemarekin kontraesana sortzen duela dio Haur Filosofiko irakasleak: “Irakasle horrek gero notak ezarri behar baditu, hierarkia bat markatzen ari da... Hala ere, kontraesanak kontraesan, hobe da elkarrizketari tarte bat ematea ezer ez egitea baino”. Haatik, Haur Filosofiarekin koherentee-na askatasunezko pedagogiak txertatzea

izango litzateke. “Piagetek esaten zuen ulertzea asmatzea dela, nork bere ezagutzak asmatu behar dituela, eta horretarako ikertzen utzi behar dizute, zure erritmoa eta zure interesen arabera”.

Haurrekin erabili aurretik, Camisonek irakasle-taldeari elkarrizketaren metodologia erabiltzea proposatzen dio, esperientzia bizitzea. Errespetuzko, maitasunezko eta konfiantzazko testuinguru batean elkarrekin hitz egiten dugunean zer sentitzen dugun aztertzea oso garrantzitsua dela dio, ondoren haurrekin esperientzia partekatzeke.

Tutoretza orduak ikusten ditu apropos umeekin elkarrizketaren metodologia baliatzeko, batez ere LHn eta DBHn beti baitaude gatazkak eta zer konpondua. “Elkarrizketak hor lan handia dauka nola sentitu garen aztertzeke, balio etikoak eta emozioak mahai gainean jartzeke”. Elkarrizketa, azken batean, zeharkako tresna bat da, “tresna oso malgu bat, eta edukiak ulerturik eta metodologia barneraturik, edozein momentutan erabil daiteke”.

trebetasunak berez landuko dituzte horretarako aukerak ematen badizkiegu; gaur egun, ordea, curriculum zorrotzak ditugu, eduki zorrotzak, gero eta lehenago ikasi behar da idazten, matematikak egiten... garuna prest egon baino lehen prozesu asko arreratzten ditugu, eta haurrari ez diogu pentsamenduaren trebetasunak berez garatzeko aukera handirik eskaintzen”. Gaur egun bizitzan, oro har, dugun presa hezkuntza-sisteman sartu dugula uste du Camisonek, horregatik “inoiz baino beharrezkoagoa” deritza eskola-testuinguruan elkarrizketa-

rako espazioak sortzeari, “elkarrekin errespetu giroan egoteko”.

Elkarrizketarako kontestu egokia sortzeko, beharrezkoa da entzumenaren pedagogia lantzea lehenengo. “Ez badago entzumenik, ez dago elkarrizketarik. Entzutea barrutik hutsik egotea da. Burua gauzez beteta baldin badugu, ez zaigu iritsiko besteak esaten diguna; geure gauzei bueltak ematen ariko baikara. Horregatik, entzumenak garapen pertsonalarekin zenikusi zuzena du”. Entzumenaren pedagogia azaltzeko, Jiddu Krishnamurtiren hitzak ekarri ditu gogora:

kikara bat betetzeko, hutsik egon behar da; bestela, dena barreiatu egingo da. Elkarrizketa espazio bat da, non hutsik egon behar duzun barrutik, lasai, besteren edukiz eta arazoiz bete ahal izateko; eta gero hustu”.

Entzumenak, halaber, emozioekin zenikusi dauka. “Besteak zerbaite esaten duenean, batzutan emozioak mugiarazten dizkigu; orduan, arreta paratu behar diegu baita ere sorrarazten dizkigun emozio eta sentimenduak”.

Entzutearen pedagogiarekin oso lotua dago galderaren pedagogia. Galderak izan-

Haur Filosofia

go dira ezagutzaren bidea emateko tresnak, eta, hasiera batean, irakaslea izango da galderen bidez elkarriketa erraztuko duena; alabaina, prozesuan eta metodologian aurrera egin ahala, haurrek eurek galderak egitea izango litzateke helburua.

Galdera irekiek, kitzikagarriek eta sakonek laguntzen dute pentsamendua garatzen. Eta horiek izango dira irakasleek haurrei pentsarazten laguntzeko izango dituzten tresnak: “galderekin elkarriketa bat errazten duzuenean, zuk ez duzu heldu bezala ez erantzuten, ez iritzirik ematen, ez epaitzen. Ohartu behar dugu irakasle izan arren ez garela egiaren jabe, egia asko baitaude”. Irakasleak alabaina, elkarriketan zehar kontraesanak baldin badaude, adieraz ditzake: “Hasieran hau esan duzu, eta orain kontrakoa esaten ari zara; nola da hori?. Galderen bidez sakonago pentsatzen laguntzea da kontua, era kritikoago eta sortzaileago batean”.

Gaiak

Elkarriketaren bidez landuko diren gaiak haurren interesekoak izango dira. “Interes horiek, helduenak bezala, euren bizi-espereientziarekin lotuak egongo dira, bakoitzak bere etxean eta bere ingurune zabalagoan bizi dituenak piztuko die interesa”. Ondorioz, talde bakoitzak oso espereientzia diferentea izango du. Haur txikiekin bizi izandako espereientzia bat kontatu du Camisonek: osasunaz aritu ziren, eta haur bakoitzak gaixotasunarekin izan zuen harremana kontatzen hasi zen, zein gaixotasun izan zituzten eurek eta ingurukoek; “hortik abiatu, gaixotasuna zer den modu abstraktu batean azaltzera eramane zuten elkarriketak 4-5 urteko umeak, oinarrizko bizi espereientziatik abstrakzio txiki bat egitera pasa ziren”.

Beste behin, heriotzari buruzko ariketa bat landu zuen Camisonek, batetik nerabeekin, eta bestetik helduekin. Heriotzari buruzko film labur mexikar bat ikusi zuten.



Haurrak eta irakaslea maila berean eta borobilean eserita jartzen dira elkarriketa filosofikoan

“11-12 urteko nerabeak ziren, eta naturaltasun osoz hartu zuten heriotzaren gaia; ni txundituta gelditu nintzen. Ondoren, ariketa bera helduekin egin genuen, eta han krisi bat egon zen, jendeak itolarria sentitu zuen; urrutiko film bat izan arren, euren emozioekin konexioak egiten baitituzte”. Espereientzia horien ondoren are argiago ikusten du Camisonek pentsamenduak jatorri emozional bat daukala. “Emozioek ikaragarri baldintzatzen dute elkarriketa, eta arreta jarri behar zaie, erabat inkontzientek baitira”.

Haur Filosofiaren proiektuak kontuan hartzen du emozioek eta pentsamenduak lotura dutela, baina Camisonek iritziz, ez zaie emozioei aski garrantzia ematen, intelektuan gelditzen baita Lipmanen proposamena. Camisonek beharrezkoa deritzo Socratesek esaten zuena gogora ekartzeari: “lehenengo zeure burua ezagutu, eta lanke-ta pertsonal hori egin ostean, ulertuko ditugu bestea dugu mundua; bestela, denbora guztian geure filtroetatik eta juzkuetatik ikusiko dugu bestea”.

Pentsamenduaren trebetasunak

Elkarrekin pentsatzeko, pentsamenduaren trebetasunak lantzen dira, entzutea-

ren pedagogiaz eta galderaren pedagogiaz gain. Pentsamendu-trebetasun horiek pentsamenduari dinamismoa eta oinarri sendoa emateko balio dute. Haur Filosofiak bost multzotan biltzen ditu pentsamendu-trebetasunak. Honako hauek dira:

- hautematea: zentzumenak, eta nola jasotzen dugun kanpoko informazio guztia.
- ikerketa: zerikusia du umeak ikerlari eta espereimentatzaile sutsuak izatearekin. Pentsamendu mota horri irteerak eta aukerak ematea da.
- arrazoiketa: iritziaren eta argumentuekin zerikusia duena.
- kontzeptualizazioa: kontzeptuak eratzeko informazioaren antolaketarekin zerikusia du. Abstrakzioarekin zerikusia du, eta konexioak egitearekin: zatiak eta osotasuna, bitartekariak eta helburuak, konexioak egitea.
- itzulpena: zerikusia du esanahia mantentzearekin.

Haurren garapen-mailaren arabera, pentsamenduaren trebetasun batzuk besteak baino gehiago erabiliko dira. Haur Hezkuntzako garaian, adibidez, sentsu motorea eta emozionala izaki, mugimenduak garrantzia du, haurrek mugitzeko premia bai-

taukate. Elkarrizketaren denbora, beraz, mugatua izango da etapa horretan. Bost-hamar minutuko tarte-espazioak bilatzea proposatzen du Camisonek, etapa horretan haurrek ekintza konkretuen bidez egiten baitituzte konexioak eta garatzen dute pentsamendua. Ez daukate abstraitzeko gaitasunik, “oraindik egozentrismo handia dago, eta borobileen gaudenean bakoitzak berea esan nahi du, ondokoari entzun gabe”. Ondorioz, Haur Hezkuntzan oso modu malguan hartu behar da elkarrizketarena, kultura baten gisan, elkarrekin egoteko eta hitz egiteko kultura bat bezala. Jolasari ematen dio garrantzi berezia, garai honetan, Haur Filosofiak, eta “pentsatzera” jolasen dira.

LHn garrantzi handiagoa hartzen dute arrazoiketak, kontzeptualizazioak eta itzulpenak, baina oraindik ere oso oinarrikoak dira. “Lehen Hezkuntzan haurrek honako galdera hauek dituzte: nolakoa da mundua? Izan ere, mundua ezagutzen ari dira, eta konexio pilo bat egiten dituzte. Nerabezeroan galdera beste bat da: “Nor naiz ni mundu honetan?”. Etapa honetan ikaragarriko beharra dute nerabeek elkarren artean hitz egiteko, eta hori ondo kudeatu ezean, oso zaila da behar horren gainetik klase bat ematea. Beraz, Camisonek dio momentu horretan elkarrizketari espazio bat ematea zoragarria izan daitekeela gatzetxo horientzat. Era horretan, gainera, bost trebetasunak sakonki landu daitezke, pentsamendu abstraktua eta kontzeptualizazioa eurenganatu baitituzte.

Prozesu baten gisan planteatzen du Haur Filosofiak elkarrizketaren kultura. “Nerabezarora bitartean pertsona horri sekula ez baldin bazaio hitz egiten utzi, eserita eta isilik egotea eskatu baldin bazaio beti, ezin zaio errespetuzko elkarrizketa bat edukitzea bat-batean eskatu”. Ahal dela, txikitatik barneratu beharreko kultura gisa planteatzen du Camisonek: “Txikitatik espazioak sortzen baldin badira elkarrekin



Maliko Hitzaren Etxeetako bat.

egoteko eta elkarrekin solastatzeko, errespetua, konfiantza eta besteari entzunez solasteko kultura sustatzen baduzu, munduan egoteko beste modu bat sortzen ari zara”. Adibide gisa, Haur Filosofia lantzen duen HHko bere kide baten adibidea jarri zuen: “3, 4 eta 5 urteko haurrekin landu zuen Lipmanen proiektua. Eta haur horiek Lehen Hezkuntzara iritsi zirenean, irakasleak esan zion ume haiek lotsagabe batzuk zirela; galdera asko egiten zituztela eta sobera iritzi ematen zituztela, eta horrela ezin zela klase-rik eman. Lagun horrek bestelako espazio eta kultura bat sortzeko egin zuen ahalegin guztia non gelditzen da, hurrengoak jarraitpenik ematen ez badiu prozesu horri?”.

Elkarrizketa, beste kultura batzuetan

Elkarrizketa gure kulturaren eztabaidarekin nahasten da, kasu askotan, ez baitago egon elkarrizketaren erreferentziarik. Politikariaren adibidea jarri du Camisonek: “Denbora guztian esaten digute elkarrizketan ari direla, baina ez da hala izaten, eztabaida bat edo negoziazio bat izaten da. Arrazoiak daude, eta norberak bere arrazoiak inposatu nahi du, eta hori aurrera eramatea oso inportantea da norberarentzat. Sinismen sakon batzuk dituzu pertsona bezala, eta hori

defendatzen duzu, eta ezin dituzu besteari arrazoiak entzun, zureak pisu handiagoa duelako. Ez diozu besteari zilegitasun gizatiarra ematen, ezeztatzen ari zara argumetuen bidez”. Eztabaidan irabazleak eta galtzaileak daude, baina elkarrizketan ez dago galtzailerik, “denek irabazten dute”. Eztabaida eta elkarrizketa bortizkeriak bereizten du: “Eztabaidan bestea ezeztatzen duzu, eta hor dago bortizkeriaren hazia. Zuk izan dezakezu beste iritzi bat, eta hori zilegi da, baina ez duzu zertan bestea ezeztatu pertsona bezala. Hor dago gakoa”.

Badira elkarrizketaren kultura barneratuago duten gizarte-ereduak. Ahozko kultura gero eta biziago mantendu, elkarrizketaren kultura orduan eta sakonagoa dela dio Haur Filosofiako irakasleak. Maliko Hitzaren Etxeak oroitu ditu mundu-mailan elkarrizketaren kulturak duen hedapenaz galdetuz. Lastozko etxeak dira, eta hor egiten dira batzarrak. Etxe horiek, alabaina, txikiak dira, baxuak, eta barrura sartzeko makurtu egin behar dute parte hartzaileek, eta denak altuera berean daude eserita teilatu baxuaren azpian. Elkarrizketan norbait piztu eta altxatzen bada, buruan teilatuarekin hartuko duen kolpeak esango dio lasaitzeko eta ostera ere makurtzeko.

blanca olalde



ELKARRIZKETA

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea

“Kultur aniztasunak irakaskuntzan ekarri duen erronkari aurre egiteko baliabide gutxi ditugu oraindik”

Estereotipoen eta pentsamendu heuristikoaren arteko lotura, kulturarteko hezkuntzaren alorrean. Hori da Blanca Olalde Lopez de Aretxabaleta lantzen ari den tesiaren gaia. Kultur aniztasunean irakastea gure eskoletako “erronka berri bat” dela dio Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskoletako Irakasleak. Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean, baloratzea eta gauza positibotzat hartu behar dela dio. Horretarako, estereotipoez jabetu eta horiek gainditzea beharrezko jotzen du. “Esaterako, ez dago oinarririk ikasle etorkinak errendimendu baxuarekin lotzeko, korrelazio ilusorio bat besterik ez da. Hemen jaiotakoekin zein kanpoan jaiotakoekin artean daude ikasle onak eta txarrak”.

Korrelazio ilusorio horiek desmuntatzen laguntzeko, aniztasunari buruzko formazioa eskaintzen die Olalde irakasleei, baina benetako aldaketa gerta dadin, hezkuntza komunitateko eragile guztiek parte hartuko duten planteamendu orokor bat egin behar dela dio.



Kultur aniztasunaren testuinguruan ikastea eta irakastea, gai berria dugu irakaskuntzan?

Nik esango nuke erronka berri bat dela irakasle guztiontzat. Baliabide gutxi dugu, eta baita ohitura gutxi ere, erronka horri aurre egiteko. Irakasleek kezka hori adierazten dute. Orain arte ohituak egon gara mundu homogeneo batean irakasten: denok eduki berdina, modu berean, metodologia eta ebaluaketa berdinarekin... Nahiz eta lehen ere aniztasuna bazegoen, ez genion kasu handirik egiten gaiari. Orain nabariagoak direnez kultur aniztasunaren zantzuak, azaleratu da.

Aniztasun horrek planteatzen duen erronkari erantzuteko, zein aldaketa egin beharko litzateke?

Aldaketa orokorrak behar dira, ez arlo zehatzetako aldaketak: edukiak, metodologia... Planteamendu orokor bat diseinatu behar da aniztasunari aurre egiteko. Eta hor, hezkuntza komunitateko partaide guztiek hartu behar dute parte: irakasleek, ikasleek, familiarek... Aldaketa horiek islatu behar dira eragile guztietan eta arlo guztietan: eskola proiektuetan... Aldaketa itzela eskatzen du, modu holistiko batean egindako aldaketa.

Zein dira horretarako tresnak?

Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztien artean integrazioan dago koska. Kultur aniztasunari buruz plan orokor hori islatu behar da eskola proiektuetan, eskola metodologian,

familien formakuntzan eta parte-hartzean, ikasleen ebaluazioan, eta abar. Esparru asko direnez, lan handia da.

Aniztasunak eskatzen du kulturarteko konpetentziak garatzea, bai irakasleen artean bai ikasleen artean. Modelo ezberdinak planteatzen dira, baina eredu horien laburpen bat egitearren, azpimarratuko nuke garrantzitsuena dela jabetzea gauzak aztertu ahal direla ikuspegi ezberdinetatik, enpatia garatzea, ikuspuntuen zabalera irekitzea, eta etnozentrismotik ateratzea. Azken finean, aniztasuna baloratzea da oinarria, gauza positibotzat hartzea, eta arazo bezala hartzen duten pentsamenduak baztertzea.

Immigrazioak planteatzen dituen erronketako bat kognitiboa dela idatzi duzu artikulu batean. Erabakiak hartu edo iritzia osatzerakoan konplexutasuna sinplifikatzera jotzen dugu, ez diogu arau-sistema bati jarraitzen. Horrela sortzen dira estereotipoak.

Eguneroko bizitzan informazio asko prozesatu beharra dugu, eta estereotipoek eta heuristikoek laguntzen dute antolatzen informazioa modu azkar batean. Kategoriak eta eskemak osatzen ditugu, aurretik barneratuta ditugun ideiak eta usteak erabiltzen ditugu... Batzutan funtzionatzen du pentsatzeko modu horrek, baina beti ez da modurik zuzenena. Horren kontzientzia hartu behar dugu, modu sinplista horrek ondorio batzuk izan ditzakeelako.

Estereotipoak unibertsalak dira, kultura eta gizarte guztietan existitzen dira, baina garrantzitsua da, gutxienez, horren kontzientzia izatea. Jakitea nola funtzionatzen duten estereotipoek, noiz erabiltzen ditugun, ondorio negatibo horiek ekiditen saiatzeko. Denok jasotzen ditugu beste pertsona edo taldeen estereotipoak, eta guk ere erabiltzen ditugu besteak epaitzeko.

Eskolak zein tresna ditu estereotipoen gaia gelan lantzeko, estereotipo kulturalaz jabetzeko eta ideia sinplistik gaitzeko?

blanca olalde

E

“Aniztasuna baloratzea da oinarria, gauza positibotzat hartzea, eta arazo bezala hartzen duten pentsamenduak baztertzea”

“Hemen jaiotakoen zein kanpoan jaiotakoen artean daude ikasle onak eta txarrak. Beraz, ez dago loturarik, guk sortzen dugu korrelazio ilusorio hori”

Erne ibili behar dugu, askotan azaltzen baitira estereotipoak komunikabideetako albisteetan, politikarien hitzaldietan, edonoren diskurtsoetan... Estereotipoez jabetzeko eta haiek gáinditzeko, egokia da ikasgelan adibideak azaltzea (pertsonalak zein besteonak), enpatia garatzea eta estereotipoen menpean gaudenean nola sentitzen garen azaltzea, zeren denok sufritu dugu inoiz estereotipoen zama, edo ezagutu ditugu antzeko egoerak gure ondoan.

Estereotipoak non dauden ondo aztertzea ere komeni da, zeren konturatu gabe sartu daitezke gure barrura. Esaterako, telesailak eta filmak oso tresna eraginkorrak dira estereotipoak sortzeko, eta hausnarketarako jokia ematen dute, esaterako, zergatik telesailietako pertsonaia batzuk izaten diren beti nazio edo etnia batekoak...

Material anitzak erabili behar dira aniztasuna baloratzen ikasteko, kulturarteko gaitasunak garatzeko, eta pentsamendu kritikoa eta erreflexiboa lantzeko ikasleekin. Planteamendu sozio-afektibo bat erabili behar da.

Estereotipoak eta aurreiritziak identifikatzea zaila gerta daiteke hainbat kasutan, horrenbeste naturaldu ditugunez, ezta?

Bai, hala gertatzen da. Korrelazio ilusorioak egiten ditugu modu naturalean, eta ez gara konturatzen oinarririk ez dutela egiten ditugun hainbat loturak. Esaterako, ikasle etorkinak errendimendu baxuarekin eta ikasle txarrak izatearekin lotzen ditugu sarri. Baina ez dugu aztertzen korrelazio hori egiteko arrazoi objektiborik badagoen, ea badagoen daturik. Hemen jaiotakoen zein kanpoan jaiotakoen artean daude ikasle onak eta txarrak. Beraz, ez dago loturarik, guk sortzen dugu lotura hori. Horren atzean zer dagoen aztertu behar da ikuspuntu ezberdinetatik, zeren agian egiten ari garena da eskolak dituen arazoak ikasle horien gainean bota, eskolaren arazo estrukturalen errudun bilakatu.

Maiz egiten den beste korrelazio ilusorio bat da familia etorkinak eta

hezkuntzarekiko interes falta lotzea. Horretan ez dugula sinisten esaten dugu, baina gero praktikan ikusten da ideia hori hor dagoela. Konturatu behar gara familia guztien artean denetarik dagoela, batzuk asko hurbiltzen dira eskolara eta beste batzuk ez.

Tamalez, oraindik ez dugu nahikoa baliabiderik aniztasunaren erronka hori aurrera eramateko modu zuzen batean, ohitura faltagatik edo hastapenetan gaudelako.

Irakasleek jasotzen dute kultur aniztasunean ikasteko eta irakasteko formazioa?

Bai, gero eta gehiago. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2004an martxan jarritako Herrera-Planarekin hasi zen jorratzen gaia eskoletan. Ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzeko eredu orokor bat eskaintzen die planak ikastetxeari, eta bakoitzak ere egoera propiora moldatzen du.

Etorkin kopuru handia duten ikastetxeek badute pertsona bat gai hori eskolan bideratzeaz arduratzen dena, proposamenak planteatzen dituena... Irakasle eta arduradun horiek formatzeko lan handia egin da. Halaber, Garatun eskaintzen dira aniztasuna bideratzeko ikastaroak, eta Magisteritzako ikasleekin ere lantzen da gaia.

Hain zuzen, badira sei urte kultur aniztasunari buruzko formazioa eskaintzen duzula Garatu egitasmoaren barruan. Lehen esan duzu euren kezka agertzen dutela irakasleek.

Irakasleen formakuntza ikastaroetan korrelazio ilusorio horiek identifikatu eta desmuntatzen ditugu, beste interpretazio batzuk egon daitezkeela aztertzen dugu, eta familiak eskolara erakartzeko moduak aztertzen ditugu: familien arteko sareak osatu, informazioak trukatu, familien arteko prestakuntza landu interesatzen zaizkien gaiekin, familiak eta seme-alaben hezkuntza lotzeko formulak...

Irakasleak interesatuta daude hori



lantzeko. Ikertu dut noraino barneratzen ditugun guk, irakasleok, sinesmen horiek. Esaten dugu ezetz, baina gero ikusten da barruraino sartu zaizkigula ideia horiek; horregatik erne ibili behar dugu ez erortzeko tranpa horretan. Ondorio negatibo asko dituelako, eta batzuk nahiko latzak izan daitezke: familia batzuek ez dute seme-alabak eskola publikora bidali nahi horrelako aurreiritziak dituztelako, etorkinekin ikasiz gero emaitza akademikoak txarragoak izango direlakoan...

Irakasle eta ikasleengan zein eragin izan dezakete estereotipoek?

Irakasleok espektatiba baxuagoak izan ahal ditugu uste baldin badugu ikasleak txarrak direla, ez dutela interesik... Ikasleok auto-estimua baxuagoa izan dezakete, edo estereotipo horren arabera joka dezakete, ikasle txarraren estereotipoa bereganatu dutelako...

Estereotipo edo korrelazio ilusorioak desmuntatzen ikasteaz gain, kultur aniztasunaren alderdi positiboetan arreta jartzea eta indartzea beste giltzatariko bat izan liteke, ezta?

Bai, irakasleek askotan nabarmentzen duten gaia da. Gelan gai batzuk aritzeko orduan oso aberatsak dira jatorri ezberdinetako ikasleen testigantzak, esperientziak... Ezberdinak direlako gai bat aztertzean, eta askoz aberasagarriagoa da. Edozein gaitan, animaliak, garraioak, landareak... Zoritxarrez, alderdi negatiboak bakarrik ikusteko joera dago, liskarrak... eta horrek estaltzen du beste guztia. Ez ditugu konfliktoak bideratzeko tresnak.

Gazteen artean immigrazioarekiko jarrera irekiagoa sumatzen duzu?

Gaur egun euskal gazteek lehen baino harreman handiagoa dute beste kulturetako gazteekin. Kirolaren edota zaletasunen bidez, kulturarteko talde gehiago ikusten dira gazteen artean lehen baino. Egin nuen ikerketa txiki batean ondorio hori agertu zen, ez dago horren aurkako iritzirik, aurreiritzirik.

Esan nahi du horrek gaur egungo gazteengan estereotipoek eragin apalagoa dutela?

Izan liteke, bai, edo beharbada gaur egun

“**Estereotipoek jabetzeko eta haiek gainditzeko, egokia da ikasgelan adibideak azaltzea (pertsonalak zein besteean), enpatia garatzea eta estereotipoen menpean gaudenean nola sentitzen garen azaltzea**”

blanca olalde

E

“ Lehen kezka handiagoa zegoen immigrazioarekiko. Baina gaur egun egoera alderantzizkoa da, hemengo gazte askok emigratu behar izatea da orain kezka ”

“ Gelan gai batzuk jorrazeko orduan oso aberatsak dira jatorri ezberdinetako ikasleen testigantzak, esperientziak... ”



ez dago ondo ikusia modu ireki batean adieraztea aurreiritzi horiek. Agian baditugu, hor daude, baina ez gara ausartzen argi eta garbi azaltzen. Edo modu sotilago batean azaltzen dira, ez hain esplizituki. Arrazakeria modernoa deitu izan zaio, modu sotil baten bidez adierazten dena.

Estereotipoak noiz hasten dira sortzen?

Txiki-txikitatik joaten dira agertzen, batzuk familiarengandik jasotzen ditugu, beste batzuk gizartean daude, komunikabideetatik, pelikuletatik, telesailetatik ere jasotzen ditu, eta haiek barneratzen edo ikasten ditugu. Baina beti ikasten ditugu konturatu gabe, modu automatiko batean, eta behin osatuta zaila izaten da desmuntatzea. Adina aurrera joan ahala gero eta zailagoa da, gainera. Horregatik uste dut interesgarria dela gai hori txiki-txikitatik lantzea.

Euskal gizarteak nolako jarrera du kultur aniztasunarekiko? Arduratzen al gaitu?

Bai eta ez. Orain azaldu dira gizartearen garrantzi handiagokoak diren gaiak, krisi ekonomikoarekin lotutakoak: langabezia, esaterako. Bestetik, badirudi immigrazio datuek ez dutela gora egin azken urteetan, eta erlaxatu egin gara. Lehen kezka handiagoa zegoen, duela urte batzuk. Baina gaur egun egoera alderantzizkoa da, hemengo gazte askok emigratu behar izatea da orain kezka. Duela bospasei urte egindako ikerketa txiki batean gazteei galdetu nien ea ikusten zuten euren burua emigratzen beste lurralde batera, eta gehienek esaten zuten ezetz. Gaur berriz egingo banu galdera bera, emaitzak oso ezberdinak izango lirateke. Immigrazioarekiko ardura hor dago, baina gaur eguneko egoera sozioekonomikoaren ondorioz, adierazpenak edo moduak ezberdinak dira.



2013ko uda ekarpenak

Urko AROZENA

Ametsak eta entrenamendu mentala zoriontsu izateko

“Gauetz ametsen bidez jasotako mezua egunez lantzen badugu, gure zorionerako bidean pauso asko emango ditugu”

Ametsen munduan ere murgilduko da Urko Arozena aurtengo ikastaroan. “Ametsak guretzako dakartzaten mezua eta ikasketa interpretatuko ditugu, arazoei soluzioak bilatzeko informazioa eskatuko dugu”.

Urte batzuk badaramatzazu ikastaroak ematen Udako Topaketetan. Zer beharrekin etortzen dira irakasleak zure ikastarora, eta nola irteten dira?

Orokorrean, norberaren ezinegonak lasaitzeko, informazio bila etorri ohi dira parte hartzen dutenak. Zoriontsuak izan nahi eta ezin, familiakoren bat hil berria delako, edo nahiz aspaldi hil, buelta eman ezin diotelako, ikasleekin entrenamendu mentala praktikan jartzeko asmoz, etabar. Ariketak behartuta egiten dituenak ere aldaketa sumatuko du azaldutako aukeren bidez: irtenbidea ikusiko du, bere buruari eta ikasleei laguntzeko aukera praktikoa, joandakoak bihotzez eta bakean agurtzeko bidea, bizitzako helburuak argitu eta haien bila gogotsu ibiltzeko bidea.

Produzitzeaz arduratzen gara gero eta gehiago, eta geure burua zaintzea eta elikatzea ahaztu egiten zaigu batzuetan. Zein dira gure benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsune nabarmenenak?

Pertsona guztiak desberdinak gara eta kontuan izanik eta, hala ere, zure galderari erantzuten saiatuz, orokorrean eta niri dagokidan arlotik atera gabe, hutsune nabarmenena zoriona kanpoan bilatzea da.

Kanpoan esperientziak gertatzen dira, batzuk atseginak, beste batzuk ez hainbeste. Esperientzia horien aurrean, guk era batera



Urko AROZENA
MUSIKENKO PERKUSIO IRAKASLEA

edo bestera erantzuten dugu, pertzepzio desberdinak eduki ohi ditugu, gure egoera emozionalaren eta gure usteen arabera. Gure emozioak gure esku daudela konturatzea da kontua, gertatutako horren aurrean gure esku dagoela zer sentitu, eta, batez ere, gertatutakoa aspaldiko kontua bada eta atsegin ez bada, gure ardura dela sentimenduei eustea edo joaten uztea. Askotan, kontzientze ez izan arren, guk erabakitzen dugu sufrimendua gerturatzea, min gehiago bizitzea, gure biktima-paperean jarraitzeko.

Eta nola eragiten digute hutsune horiek gure eguneroko bizimoduan eta lanean?

Sufrimendua ardatz duen bizimodua gogorra da, eroso, baina gogorra! Sufritzen bizi denak sufrimendu-jarrera eta sufrimendu-aurpegia azalduko ditu. Haren ondoan egotea ez da batera atsegin, beti kexaka, besteak epaitzen...

Pertsona guztiok ez ditugu ikasketa berdinak (bizitza honetan emozionalki ikasi behar dugunari deritzot ikasketa: maitatua eta errespetatua sentitzea, duintasuna defendatzea, kontuan hartzen gaituztela sentitzea eta merezi dugula onartzea...). Bizitza

lasaia dela ikasi behar duenak ziztu bizian joateko joera izango du, bizitza dastatu gabe, bizitza bizi gabe, bizitza lasaia ez dela sentituta eta sentipen horrekin sufrirituta. Buelta emateko, mediatu eta egin behar duen ikasketa zein den ohartzea aukera paregabea da. Konturatzen denean hasiko da egoera beste era batera ikusten, sentitzen eta bizitzen. Bizitza lasaia dela ohartu, eta bizitza berran eta ehuneko ehuneko bizitzen hasiko da, bere gaitasunen arabera.

Irakaslea jendaurrean (haurren, beste irakasleen edo gurasoen aurrean) egoten da ia uneoro. Langintza horretan, oso beharrezkoa da norberaren burua ezagutzea eta gustura moldatzeko tresnak edukitzea, ezta?

Irakaslea pertsona da lehenengo. Pertsona den horretan zoriontsua izan nahi badu, bere burua ezagutu, onartu eta maitatu beharko du, bere abantaila eta hutsune guztiekin. Helburu horiek lortzeko planteatzen duguna, meditazioa, alegia, bide egokia da.

Norbera ongi sentitzen denean, askoz errazagoa da besteen egoeraz jabetzea, onartzea, barkatzea, partekatzea, etabar.

Besteen aurrean azaltzen denerako bere barrua lasai badu, eta lasai jarraituko duela sinesten badu, oso zaila izango da irakasle hori bere onetik ateratzea. Guraso urduri batekin bildu behar badu edo klaustroan gai korapilatsua landu behar badu, temple onean egoten jakitea tresna paregabea bihur daiteke!

Zer-nolako tresnak erakutsiko dituzu?

Nire ikasketan ezagututako meditazio-sistema eraginkorrenen tresnak azalduko ditut: indarberitze-arietak, PNL, sofrologia, erabateko barkamena, yoga eta bisualizazio-arietak, eta abar. Aurten, ametsen munduan ere murgilduko gara, eta horiek

guretzako dakartzaten mezua eta ikasketa interpretatuko ditugu, arazoei soluzioak bi-latzeko informazioa eskatuko dugu.

Ametsak ulertu eta lantzeko tresnak eskainiko dituzu. Ez al daukagu ametsak ahaztuak gure gizartean? Zer garrantzi dute? Nola uler ditzakegu?

Gauero egiten dugu amets. Zientzialarien ikerketen arabera, bost amets egin genitzake gauero. Amets horiek, Gestalt-aren arabera, bestelako mezuen artean, gure subkontzientek gu nola ikusten gaituen azaltzen dute.

Mezu horiek interpretatzen ikasteak egunerokotasuna hobeto eta errazago ulertzeko aukera ematen digu. Gure jarrerren zergatia ulertzen laguntzen dute.

Gauetz jasotako mezua egunez landuko genuke, gure zorionerako bidean pauso asko emango genituzke, gure zorion-egoerara gehiago hurbiltzeko.

Horretaz gain, ametsak arazo zehatzei buruzko soluzio garbi-garbiak ekartzen dizkigute. Soluzio horiek nola bidera dai-

tezkeen ere azalduko dugu.

Meditazioa ez dago erabat zabaldua oraindik Euskal Herrian. Zein dira haren onurak?

Gizakia bezain izaki bitxirik ba ote da munduan?

Euskal Herri zoragarri honen historian pixka bat murgilduta, meditazioaren alde espirituala erabat txertatua duen gizartea azaltzen zaigu, eta luzea eta amaigabea da gurtuak izan direnen zerrenda: Urtzi, Ekhi, Kixmi, Aitor, Mari, eta, ondoren, San Migel, San Gabriel, San Isidro, eta abar. Gauregun, ezagutza horren mamiari buruz jakin nahi duenak, bilatu beharra dauka, ez dago hain eskura. Azaleko sinboloaren benetako esanahia ezkatuta egin zaigu.

1926 inguruko entrenamendumentalaren liburu batean aurkitu nuen Ignatius de Loyola izeneko pertsonaia ezagun baten aipamena, non jarraitzaile zituenei meditazio gogorrak eginarazten omen zizkien, indar negatiboan eragina meditazioetan biziara-ziz, indar negatibo haien tentazioetatik

urrutiratzen laguntzeko.

Fraideek eta mojek adina meditatatu duenik ba ote da?

Galdera hauek sortzen zaizkit: ezaguerara hori zeukatenek zergatik ez ziguten jakituria hura irakatsi? Zergatik ez ziguten zoriontsu izaten irakatsi? Zergatik oinarritu zuten hezkuntza beldurrean? Zergatik saiatu ziren gizartea beldurraren beldurrez emozionalki hiltzen? Zergatik?

Kuriosoa da etxean bertan geneukan ezagutza ofizialki ukatu eta, gaur egun, kanpotik ekarritakoa zabaldu behar izatea, Asiatik iritsitakoa, lehenengo, eta, gaur egun, Amerikatik ere badatorrena.

Baina bizitza horrelakoa da: mementoa iristen denean gertatzen dira gertatu beharrekoak.

Meditazioaren onurak amaigabeak dira, bai osasun fisikoa bai mentalean. Onura nagusia, nire iritziz, hau da: bizitza honetara zein ikasketarekin etorri ginen argitzen laguntzen duela, eta, ikasketak argitu ondoren, horiek landuz benetako zorion egoerara gerturatzen garelara.



Francesco Tonucci:

“Haurrentzat egokia den hiri bat, biztanle guzti-guztiontzat da egokia”

Psikopedagogo eta marrazkilari italiarraren ‘Haurren Hiria’ liburu euskarara ekarri du Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak, komunitatearen biziberritzeak eta bestelako komunitate baten aldarriak hizkuntza berreskurapenarekin topo egiten duelakoan...

www.hikhasi.com webgunean eros dezakezu ‘Haurren Hiria’ (**hik hasi**-ko harpidedun baldin bazara, prezio berezian)

Jasone IRIGOIEN LOINAZ

Espresio tailerra: sortuz sentitu, sentituz sortu

“Sormenak, erlaxazioetan lantzen diren sinboloekin uztartzean, inkontzientean ditugun emozioak azaleratzea ahalbidetzen du”



Jasone IRIGOIEN LOINAZ

SORTZAILEA

Ikastaro praktikoa eta teorikoa eskainiko du Jasone Irigoienek. Er-laxazioaren bidez eta sormena intuitiboki landuz hainbat emozio azaleratzeko teknikak erakutsiko ditu. “Piskanaka askatzen goaz, eta konturatu gabe egiten da lan”.

Pintura, zeramika, eskultura, dantza, erlaxazioa..., nola uztartuko dituzue elementu horiek guztiak emozioak azaleratzeko?

Gehienetan, aurkezpen gisa marrazten hasi ohi gara, geureak deritzegun espazio horietan nola kokatzen garen ikusteko. Er-laxazioaren bidez hainbat sinbolo eta eredu lantzen dira eta, ondoren, sentitu dutena ahoz edo marraztuz adierazteko eskatzen zaie. Sortzean traba edo hormaren bat sumatzean, emozio horiei izena ipini, eta sortze-prozesu horretan kokatzen laguntzen diet. Sinboloen bidez jarduten dugu, intuitiboki lan egiteak arrazoitzean baztertuko genituzkeen emozioak azaleratzea eta lantzea ahalbidetzen duelako.

Pintura, eskultura, dantza edo antzerkia erabili ohi ditut azaleratu diren emozio ho-

riek bideratu edo sakontzeko. Lantzen den sinbolo edo emozioaren arabera aukeratzten dut adierazteko lanabes egokiena zein den. Hasieran, errazago egin ohi zaigu eskuen bidez adieraztea. Taldera egokituz goazen heinean, hainbat ariketa eta jolas aho-tsaren edo gorputz-adierazpenaren bidez egin ditzakegu. Pintura edo eskulturarekin hasitako ariketa edo jolasak dantza edo antzerkira bideratzen ditut, horren beharra sumatzen bada

Joseph Beuys artista aipatzen duzu; haren hitzetan, sortzea sendabide bat da. Nola sendatzen du sortzeak?

Sormenak, erlaxazioetan lantzen diren sinboloekin uztartzean, inkontzientean ditugun emozio horiek azaleratzea ahalbidetzen du. Azaleratu ondoren sentitzen den emozio edo bizipena epaitu gabe onartuko dugu. Hor, oso garrantzitsua da prozesua gidatzen ari denaren jarrera, begiradak, hitzak, gorputz-adierazpena, guztia zaindu behar da. Onartu ondoren, emozio hori bideratzen saiatzen gara. Sinboloekin jarraitzeko, sormenaren laguntzaz atea ireki, hormak bota, ilun diren espazioak argitu... Hitzez adierazi ezin diren bizipenak argita-

ra irteten dira behartu gabe. Sortze-prozesu horren emaitzari sortzaileak berak harriduraz begiratzen dio. Egin duen horren kontzientzia barneratzen du bat-batean. Azaleratu ez ezik, emozio edo bizipen horri bere mementoko beharren arabera irtenbide bat ere ematen dio.

Sormenak aske egiten gaitu, pixkanaka askatzen goaz, koloreak eta formak nahierara erabiliz, margotzean ere, eskuarekin ez ezik, gorputz osoarekin laguntzen dugu esku horren mugimendua, konturatu gabe egiten da lan. Harrigarria da benetan.

Sortzaile izan behar da ikastaroan parte hartzeko? Ala denok gara sortzaile?

Sormena gizakiaren dohain handiene-takoa da. Guztiongan dago sormena; beraz, denok gara sortzaile modu batera edo bestera. Marrazkiren bat egiteko eskatzen dudanean, teknika ez menperatzearen beldurra edo lotsa agertzen du heldu askok. Denok gara marrazteko gai, denok gara eskultura bat egin, dantzatu edo antzezteko gai. Sortze-prozesu horretan, teknika oro helduleku soil da. Teknikak komunikatzen eta adierazten lagunduko digu, baina ez da jomuga.



Nola lagun dezake sormenak ikasleen emozio eta jokaeren kontzientzia esnatzen?

Haurrekin sormenarekin eta irudimenearekin lan egitean, naturaltasunez, jolas-tuz, lan egin dezakegu. Lehen esan bezala, sormenaren harira aske sentitzen gara; zeharka lan egitean, zuzenki aurre egingo ez geniekeen emozio eta bizipenak lantzea posible da. Sormen-prozesuak, emozioak edo bizipenak azaleratu ez ezik, horiek eraldatzen ere laguntzen die. Prozesu horretan egiten dutena ez epaitzeak aske sentiarazten ditu. Sentitu dutena, emozio horiei irtenbide bat ematea, emaitzak begiratu eta barnerraztea... bat-batekotasun horrek ematen dio indarra. Prozesu hori gidatzen duenak adi begiratu die zehaztasunei, ariketa edo jolasen parte hartu dutenen jarrerari, talde-dinamikari... Garrantzitsua da gurasoekin harreman zuzena izatea, ariketen emaitzak balioetsi ostean sumatu dena, enpatiaz ulertu den hori, gurasoei helarazteko.



Haurrei begira, haurren emozioak, beharrak eta kezak sormenaren bidez askatzen irakatsiko duzu? Nola lagun dezake sormenak, hitzez azaltzen ez duten hori adierazteko?

Ikastaroaren lehen zatian, praktikan oinarrituko gara. Hainbat sinbolo eta eredu oinarritzat hartu, eta, zenbait ariketaren bidez, nor bere baitan sumatzen dutena lantuko dugu. Barnetik kanporako ibilbidea egingo dugu, nolabait esateko, bestela nola

ulertu, nola enpatizatu norberak sentitu ez duenarekin? Norberak aztertu ahal izango du zer emozio sortzen zaizkion, nola sentitzen den, sormenaz nola askatu, nola eraiki, nola bideratu, zein aldaketa edo bilakaera sumatu. Ikastaroaren zati teorikoan, emozioak lantzeko ariketa eta jolasen hainbat eredu eta metodologia diseinatuko dira. Zentzumenen garrantziaz arituko gara, haurren marrazkiak ulertzeko moduz, sinboloen esanahiaz... Gai ugari izango da.

Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidai iezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

aldizkaria@hikhasi.com helbidera bidali

Elena HERRAN

Pikler-Lóczyko hezitzailea: “heziketa, zaintzatik h

“Pikler-Lóczy institutuaren ekarpen ugariak hankaz gora jartzen dituzte egungo pediatria, haur-psikologia, arreta edota hezkuntza goiztiarra ere”



Elena HERRAN

EHU-KO IRAKASLEA

Hiru hilabeteko egonaldia egin berri du Elena Herranek Budapesteko Lóczy institutuan. Esperientzia “zoragarri” horren berri eman eta bertan haur txikien hezkuntzaren garrantziaz eta moduez ikusi eta ikasitakoa azaldu eta partekatuko du ikastaroan.

Bertatik bertara ezagutzen duzu Budapesteko Lóczy institutua. Zer nabarmenduko zenuke Budapesteko esperientziatik?

Bertan aurkitu nauzue, nire egonaldiaren amaierako astean, azken karpetak ixten eta balorazioaren eta agurren garai zailetan. Egia esateko, errealitate bihurtu den ametsa izan da. Bizitzak batetik bestera eramaten zaitu, eta, inoiz opariak egiten badizkizu, oraingo honetan paregabeko oparia izan da, benetako murgiltze zoragarri bat bizitzeko aukera eman baitit. Hainbat artikuluren itzulpenak, beste batzuek egindako

itzulpenen berrikuspenak edo behaketa-ikerketak bat egin ditudala esango banu, ez nuke gezurrik esango; baina hori baino askoz ere gehiago izan da hiru hilabeteko egonaldi honetan Lóczyren eguneroko bizitzan eta pilatutako jakintzan aritzeko izan dudana parada: bihotzean eta buruan daradaman esperientzia ikaragarria.

Pikler-Lóczyko hezitzaileak haurra eta haurraren ongizatea jartzen ditu erdigunean. Hezitzailearen ordutegia, materialak edota gelaren antolaketa haurraren premiei begira jartzea proposatzen du. Horrek ez al du haur hezkuntza errotik aldatzen? Hezitzailearen begiradan aldaketa bat egitea proposatuko duzu ikastaroan, ezta?

Pikler-Lóczy institutuaren ekarpen ugariak hankaz gora jartzen dituzte egungo pediatria, haur-psikologia, arreta edota hezkuntza goiztiarra ere. Azken horri dagokionez, Anna Tardosek “Lóczyko horniek hitz egiten dutela” dioenean, ozen eta garbi “entzuten” da, arreta pitin bat jarritz gero, hainbat urtean lehen haurtzaroz eraiki eta pilatu duten sakoneko ezagutza teoriko eta praktikoa aparta. Umezurztegian haurtxo eta haur txikiak beren osotasunean hazteko sortutako sistema da egungo haur-eskolararen oinarria, osatua, erabat eratu eta errotua. Bertara datorrenak, bere ongizatea eta bilakaera-maila abiapuntu hartuta, garatzeko eta heltzeko laguntza izango du, paregabeko hezitzaileei eta hezkuntza-talde sendo baten lanari esker, elkarrekin burutzen duten hausnarketari, informazio-trukeari eta kezkek, asmoak, arazoak, alaitasunak, konponbideak, lorpenak eta ezintasunak partekatzeko ohiturari esker eta, azkenik, oso zaindutako baldintza fisiko eta materialei esker. Lóczyren, haur-pedagogia eta psikolo-

gia bat datoz, beraz, gurearekin konparatuz, eta, unibertstatetik hasita, ezinbestekoa zaigu kopernikar iraultza.

Ikastaroan, haur txikien hezkuntzaren garrantziaz, arduraz, moduez eta plazeraz ikusi eta ikasi dudana datozen guztiekin hausnartzen, partekatzen eta argitzen saiatuko naiz, ahal den hobekien, noski.

Zein dira Pikler zaintzailearen berezitasunak eta ezaugarriak?

Eredu zehatz baten arabera lan eginez prestatutako zaintzaileak dira egungo hezitzaileak, zeregin profesionaletan oso ondo trebatuak eta, aldi berean, haurren heldutasunaren eta bilakaeraren ezagutza praktikoa goi-mailakoa dutenak. Beraz, eta ezaugarri batzuk aipatzearren, honako hauek azpimarratuko nituzke: ume bakoitzarekin hurreman pertsonala eraikitzeke sentiberatasuna; gorabeherak ulertu eta errespetatzeko joera; eguneko zereginetan, umei eta beraien eginkizunei, interesei eta abarri errespetua izatea, sendotasun malguarekin batera; denboraren bizipen irmoa, jarduera bakoitzari behar duen denbora emanez; hizkuntza helduaren etengabeko erabilera, haurrari informazioa emateko zein haurraren galderak, kezkek edota gatazkek ebazteko orduan —negoziazioaren artea—; espazioa modu selektiboan berrantolatzeke gaitasuna; jostailu edo material zehatz batzuk solte edo gertu jartzeko abilezia, edota proposamenei bidez portaera eskasak egoki bihurtzeko abilezia; umeen kontuak lankideekin hitzez zein jardueren bidez partekatzeke erraztasuna; eta, guztien artean bereziena: eskuen trebetasuna, behargin, gozo, zabal eta bero izan daitezten.

Eta zein dira Pikler umearenak?

hasten denean”



Pikler umea nori esaten diogu? Zein ume datorkigu burura, *Pikler umea* entzutean? Jaiotzetik edo aste batzuk dituenetatik Lóczyn hazitakoa eta bideo zoragarrietan ikusi izan duguna? Bada, ez, ez dago halakorik Lóczyn gaur egun. Aldiz, urtebete ingururekin hasitakoen artean, haur zoriontsu asko ikus daitezke; gelara pozarren edo negar batean sartzen direnak, baina, harrera egokia eginda, berehala lasaitzen direnak; eskaintzen zaienaren artean nahi dutena eta nahi beste jaten dutenak, gustura eta taxuz, era hezi eta garbi batean; gelan kokatutako jolas eta materialak aukeratzuz jolas librean erraz murgiltzen direnak, luze eta sakon eta, gainera, gehienetan joera sortzailea izanik; besteekin gorabeherak izanda ere, elkarrekin bizitzen dakitenak, beraien asmoak eta proiektuak alde batera utzi gabe; beraien gorputza eta burua menderatzeko prozesuan daudenak, eta, etenik edo atzerapenik badago, eten edo atzerapen hori oso lasai bizi dezaketanak; munduaren gainean izugarritzko jakin-mina dutenak; hitz egiten, entzuten, itxaroten dakitenak

Zer-nolako garrantzia dute zaintzarako uneez haurraren ongizatean, hazieran eta hezkuntzan? Kasu askotan, pixoihalak aldatzea, jaten ematea... arretarik jarri

gabe egin izan da...

Gizakiongan eta, bereziki, adin horretan, lehen haurtzaroran, gorputza da beste guztiaren abiapuntua. Gogoratu haurrak, adierazteko, gorputzaren mugimenduak eta keinuak baino ez dituela, hizkuntza menderatu arte. Zer egiten da Lóczyn haur bakoitzaren ongizatea bermatzeko? Bada, egin, etengabe gorputza zaindu. Eguneroko antolaketaren barruan, haurren jarduera autonomoarekin batera, tinko tartekatzen dira hainbat zainketa: gosaria, pixoihala aldatzea edota pixa edo kaka egitea, gehiago edo gutxiago lagunduta, kalera irteteko prestakuntza, kalean egarria asetzeko edatea, kaleko joan-etorrietarako jantzi eta erantztea, janaria, sehaskan lasai egotea eta siesta, askaria; eta beharra sortzen denean ere, berdín egiten da: mukiak kentzea, urduri daudenean edo une gatazkatsuak sortzen direnean lasaitzeko sehaskan jartzea, arreta eskatzea, eta abar. Eta, ekintza horietan gutzietan, buru-belarri dago hezitzailea, amaitu arte; eta amaitu eta gero, atontzeko azken ukitua emanez, irribarre batekin.

Gelako materialen edo jostailuen inguruan, zer eduki behar du kontuan hezitzaileak? Eta, gelaren antolaketari dagokionez, zer eduki behar du kontuan haurrak bere

autonomia gara dezan?

Horretaz ere informazio asko dago Lóczyn. Autonomia garatzen duen materiala edota jostailua, edozein adinetan haurren interesari eutsi eta haren jarduera sortzailea ahalbidetzen duena da egokiena, eta, ondorioz, adinaren edota heldutasunaren arabera, desberdinak izango dira. Beti eta edozein adinetan, oso jostailu aukeratuak, askotarikoak eta askotxo aurkezten dira gletan, oso polito gainera. Txikien artean, auto, kamioi eta panpinekin batera, sartu eta ateratzeko tamaina askotako pilotak, uztaiak, zerrendak, piezak eta tamaina askotako baldeak, potoak, palak, koilarak, kutxak, eta abar, beti oso ondo ordenatuta eta atonduta. Nagusiagoak direnean, umeen sehaska bereziak, lasaitzeko; otzara zabalak, panpina edo peluxe erraldoi eta bigunez betirik; eta imana duten piezak, lego-kutxa, animalien kutxa, neurri askotako sukaldeko tresnak, hainbat panpina beren ohetxoetan, telefono mugikor zaharrez edo idatzitako posta-txartelez betetako otzara bat... Eta garrantzitsuena zera da: behin eta berriz selektiboki zabaldu, gorde edo ordenatzen dira egunean zehar.

Gaur egungo hezkuntza-sistemaren barruan (murrizketak, ratioak, leku-aldaketak...), posible al da Piklerren eredua aplikatzea gure haur-eskoletan?

Bada, ez Piklerrena eta ezta oinarritzko kalitatea bermatzen duen eredurik ere; baina daukagunarekin egin beharko diogu aurre dena delako ereduari. Bestalde, jakin badakigu zenbateraino den desegokia haur txikiekin erabiltzen den ohiko hezkuntza-eredua. Beraz, ereduren bat aukeratu behar bada, hortxe dugu Piklerrena, haurtxo eta haur txikien hezkuntzan egokiena haur-hezkuntzako ereduaren artean.

Amaitu baino lehen, aipamen txiki bat. Apartekoa da Lóczyn kanpoko jolastokiekin, lorategiekin, eguraldiarekin eta naturarekin duten kontaktua ere. Egun erdia baino gehixeago kanpoan egiten dute eguraldiak laguntzen duenean, eta egun erdia, laguntzen ez duenean. Benetan udaberri zoragarria izan da aurtengoa!

GIPUZKOAKO URTXINTXA ESKOLA

Eskolako bizipenak, hizkuntza-ideologia eta jarreraren eraldatzaile

“Ikasleak gaiarekin emozionatzea lortzen badugu, euskararekin emozionatzea lortuko dugu, eta horrek balio handia izango luke”



Izaro SUSPERREGI

GIPUZKOAKO URTXINTXA

Irakasleen lanetako bat ikasleak ebaluatzea da, eta ebaluatu beharreko ikasgaietako bat hizkuntzarena izaten da. Eginbehar horretan, sarritan, ikasleak “ondo nola ebaluatu” erabaki behar izaten dute, eta horren arabera sortu behar dituzte azterketak eta ebaluatzeko beste hainbat tresna. Ebaluazioa zuzena eta lagungarria izan dadin kontuan izan beharreko hainbat irizpide azalduko dituzte ikastaroan.

Zer premiari erantzuteko sortu da ikastaro hau egiteko proiektua?

Azken garaiotan gizartean puri-purian dauden bi gai uztartzeko ideiarekin sortu da ikastaro hau: psikologiaren arloan uste eta jarreraren eraldaketan bizipenek eta emozioek duten eraginkortasuna, alde batetik; eta soziolinguistikaren arloan, hizkuntzari berrari eta hizkuntza-komunitateari garrantzia emateaz gain, hiztuna norbanako gisa hartu eta maila indibidualean erreparatzea beste-



Jaime ALTUNA

GIPUZKOAKO URTXINTXA

tik.

Eskolako bizipenek sortutako emozioek zer nolako eragina dute haurren/gaztetxoaren hizkuntza-jarreretan?

Hizkuntzarekiko motibazioen eta jarreraren eraketan garrantzi handia hartzen du testuinguruak; izan ere, taldearekiko elkarrenerginak eta hizkuntzekin izandako bizipenek jarrerak bideratuko dituzte. Zentzu horretan, gizakiaren garapen-aldiek, bizipen esparruek eta funtzioek eragin handia izango dute: gurasoek eta inguru hurbilak lehenago, eskolak gero, aisialdiak, komunikabideek...

Zer da hizkuntza-ideologia eta zer garrantzia du?

Hizkuntza-ideologia pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa da. Ideologia hori erabileran, diskurtso edo portaera linguistikoa jakin batzuen bidez adierazten da. Jarrera batzuk ala beste izatea ekarriko du eta horrek, zalantzarik gabe, eragin zuzena izango du hiztunen jardueran, hizkuntza bat ala bestea hautatzean, hizkuntza baten aldaera bat ala bestea

erabiltzean.

Hizkuntza (euskara) jakinagatik ere, erabileraren datuak nahiko eskasak direla erakutsi du Arrue proiektuak. Erabileran sustatzeko, zer eduki beharko genuke kontuan?

Ahal izatea gauza bat da baina oso kontu ezberdina da nahi izatea. Horixe da guk bilatzen duguna, ahal izatek nahi izatera pasatzea. Nahi izate horrek hartzen ditu bere baitan ideologia edo usteak eta hauen arabera izango dira portaera edo jarrerak?

Ikasleek protagonismo eta ahots gehiago izango balukete eskolan (gehiago hitz egiteko aukera izango balute, adibidez) hobetuko lirake erabileraren datuak?

Zaila da hori aurrikustea. Ahozkotasuna lantzea garrantzitsua da, jakina, gaitasun hori baduzu, esan nahi duzuna esateko ez duzu inolako zailtasunik izango. Ikusi beharko litzateke ikasleei zeri buruz hitz egitea eskatzen zaien. Ikasleak gaiarekin emozionatzea lortzen badugu, euskararekin emozionatzea lortuko genuke eta horrek balio handia izango luke beraientzat. Kontuan hartzen ditugula sentiaraziz eta gertuko kontuez hitz eginez gustura sentitzea lortzeko eta euskara sentsazio positiboekin lotuko lukete.

Hizkuntza-komunitateak ze garrantzia du norbanakoak hizkuntza bat edo bestea aukeratu eta erabiltzeko garaian?

Garrantzi handia. Hizkuntza-hautaketa ez da hain libre. Lehen hizkuntza gurasoek aukeratzen dute eta gero testuinguru soziolinguistikoa gidatzen gaitu, egoeren arabera, auzo-hizkuntza batera, edo eskualdeetako komunikazio-hizkuntza batera, edo botere-hizkuntza batera.

Ixabel MILLET

'Kamishibai' tailerra



Ixabel MILLET

KONTALARIA ETA IDAZLEA

Ipuinak kontatzeko eta antzezteko Japoniako 'kamishibai' teknika-ren ezagutza zabala du Ixabel Mille-tek. Teknika horren bidez sormena lantzeko (ipuinak kontatu, marrazkiak egin....) aukerak azalduko ditu ikastaroan.

Zer da 'kamishibai' teknika? Zein dira teknika japoniar honen ezaugarriak?

Kamishibai-a Japoniatik ekarritako teknika bat da: ipuinak antzeztoki txiki batean sartzen dira eta orriak pasatuz ipuina kontatzen da.

Nik urteak daramatzat ipuinak teknika horrekin kontatzen; gehien bat ipuin japoniarrak, jakina!

Ikasleari sortzaile izateko aukerarik ematen al dio 'kamishibai' teknika? Ala soilik entzule rolean jartzen du haurra?

Teknika horrekin edozein ipuin kontadateke. Erraza da antzeztokia fabrikatzea, marrazkiak egitea... ikasleek beraiek edozein ipuin presta dezakete haien gelako edo ondoko gelako ikasleei (txiki, adibidez, edo handiei... ausartzen badira!) kontaketa

'Ikasleari sortzeko aukera paregabea eskaintzen dio 'kamishibai' teknikak'



bat horrela egiteko!

Teknika honek, ipuinak ahoz kontatzeko gain, marrazkiak egiteko edo eskulanak erabiltzeko aukera ematen du.

'Butai' antzeztoki bat egiten ere irakatsiko duzu, ezta? Zein garrantzi du antzeztokiak ipuinaren kontaktetan?

Ez dago arazorik antzeztokirik gabe kontatzeko, laminekin soilik, baina ez da gauza bera. *Butai* antzeztokiak zerbait berezia gehitzen dio ipuin kontaktari eta bere esturktura eta mugekin ere kontaktatzen da..

Ipuinek bereziak izan behar dute 'kamishibai'-n erabiltzeko, ala edozein ipuin erabil liteke teknika honen bidez?

Teorian edozein ipuin erabil daiteke. Hala ere, teknikak berak dakarren berezitasunak erabiliz (lamina pasatzean, adibidez),

hagitz hobeki gelditzen da kontaketa.

Eskola bakoitzak bere 'kamishibai'-a sortu eta erabiltzea da ikastaro honen helburua?

Ikastaro honetan *kamishibai* teknikak eskaintzen dituen bide berriak ikusiko ditugu. Eta materiala sortzeaz gain, sorturiko *kamishibai*-ak trukatzeko martxan dagoen proiektuaren berri emango da, eta parte hartzeko gonbida luzatuko dugu.

Beste ikasleek sortutakoa ezagutzea eta erabiltzea da helburua. Proiektu honek sortutako *kamishibai*-ak eta sortzeko erabilitako teknikak eta trukuak konpartitzeko aukera ematen nahi die eskolei.

Horixe izango da ikastaro honetan eskainiko dena: *kamishibai*-ak egin eta erabiltzen ikastea; irakasleak zeharkako bitarteko bikaina aurkituz, ikasleei sortzeko aukera paregabea proposatuz.

Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE

Bideoa editatzen ikasi Pinnacle Studio programarekin

“Askotan, ez ditugu grabaketa batzuk ikusten gaizki grabatuta eta editatuta daudelako”



Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE

ESCIVI, ZINE ETA BIDEO ESKOLAKO IRAKASLEA



Pinnacle Studio programa erraza da, argia eta intuitiboa baita. Irakasleei nola ikasleei aukera argi eta intuitiboak eskaintzen dizkie editatzeko, azpitoluak ezartzeko nahiz musika jartzeko ere. Editatu aurreko lanak ere hizpide izango ditu Pelaio Eizagirre, grabazio-lana garrantzitsua baita ondo editatzeko.

Gero eta gehiagotan egiten dira bideoak ikastetxeetan. Zer eskaintzen die Pinnacle Studio programak irakasleei? Irakasleen beharrak betetzen ditu?

Pinnacle Studio programak erraz editatzeko aukera eskaintzen du. Oso argia da, eta intuitiboa. Programaren interfazea —edo leihoak— oso garbia eta ulerterraza da.

Irakasleek grabaketa bat editatu behar badute, horri errotuluak, musika edota trantsizioak (errezel-efektuak) gehitu behar badizkiote, zuzenean DVD bat egin behar badute edo bideo editatua Interneten jarri

behar badute, hori guztia programa bakar baten bidez egin behar badute, bada, orduan bai, beteko ditu irakasleen beharrak.

Pinnacle Studio programa erraza da. Eta ez dut esaten hori nik erabiltzen dudalako; erabiltzaile askok gauza bera aipatzen dute. Hasieran, askotan bezala, ematen du oso konplikatu dela, baina segituan ikusiko duzu erraza dela.

Bideo bat ondo egin ahal izateko, lehenik eta behin, ondo egin beharko dugu grabazioa, ezta? Zer eduki behar da kontuan grabazio on bat egiteko? Zer irakatsiko duzu?

Grabazio on batek bi zati dauzka: alde batetik, planoak edo irudiak onak izatea; eta, bestetik, nahikoa material grabatzea. Eta, grabazioa ondo egiteko, ondo planifikatu behar dugu. Hasieratik jakin behar duguzertarako grabatu nahi dugun ekitaldi bat edo irteera bat, adibidez. Oso desberdina da ekitaldia osorik grabatzea, gai horrekin DVD bat egiteko, edo grabazioa laburpen bat osatzeko egitea, adibidez, beste gai batzuekin batera DVD bat egiteko. Ikastaroan, planoaren morfologia ikusiko dugu,

noiz daukagun plano on bat ikasteko, edo grabaketa baten plangintza egingo dugu, eta Pinnacle Studio programarekin nola editatu ikasiko dugu.

Askotan, grabatu ondoren, ez dakigu irudi horiek erabiltzen eta editatzen. Zer irakatsiko duzu edizioaz eta muntaketaz?

Lehen esan dudanez, grabatu baino lehen zer egin behar dugun azalduko dugu, eta, horrela, edizioa errazagoa egingo zaigu. Plano bat grabatzean, garrantzitsua da irudi hori bideoan zehar nola edo non kokatuko dugun jakitea. Hori kontuan hartu ezean, zuk aipatu duzuna gertatuko da: ez dugu jakingo zer egin irudiekin

Pinnacle Studio eta antzeko programen bidez, apur bat demokratizatu egin da bideo gintza, ezta? Interesgarria litzateke denok hizkuntza honen inguruko gutxieneko jakintza bat izatea?

Bai. Baietz uste dut. Askotan, ez ditugu grabaketa batzuk ikusten, luzeak edo aspergarriak direlako. Hau da, gaizki grabatuta eta editatuta daudelako. Hori pixka bat zaintzen badugu, lortuko dugu bideoa aspergarria ez izatea.

Urteko 4 zenbakien harpidetza, 20 euro

ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 5. ZENBAKIA

Hazi Hezi



Informazioa
eta harpidetza
www.hikhasi.com

GAIA:
**Jolasa oso kontu
serioa da**

ELKARRIZKETA: CARMEN MAGANTO
**"Haurren zaintza da
prebentziorik onena"**

EZTABAIDAGAI
Etxean heztea

Alazne UGARTETXEA

Krisialdirako plastika tailerra

“Dena ez dugu erosi behar, guk geuk gauza asko egin ditzakegu birziklatzeko materialekin, era erraz eta merke batean”



Alazne UGARTETXEA

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA ETA UMEENTZAKO
TAILERRETAN ADITUA

Ikastaro praktikoa gidatuko du Alazne Ugartetxeak Udako Topaketetan. “Eginez egingo dugu” eta “denak balio du” leloak praktikan jarri ondoren, “laster, etxeko zakarrontziari beste modu batean begiratuko diogu”.

Krisi garaian irudimena abian jarri behar dela diote. Zer-nolako jostailuak egin ditzakegu, zaborretara edo birziklatzera botatzen ditugun gauzekin?

Nire proposamena oso sinplea da. Etxeko edo eskolako zakarrontzian dagoen edozer altxorra izango da guretzat. Begirada bat bota eta askotariko objektuak berreskuratu ondoren, “denak balio du” leloari jarraituko diogu. Sormena eta irudimena abian jarrita eta oso teknika errazak erabiliz, gure eguneroko ur-botila itsulapiko bihurtuko da. Edateko jogurta, lasterketarako auto; eta tapoiekin, gelako hormak apainduko ditugu. Jostailuez gain, apaingarriak, dekoratuak eta horrelako gauzak egingo ditugu.

Alde batetik, birziklatzearen garran-

tziar ohartuko gara, eta, bestetik, guretzat baliagarriak diren gauzak era erraz eta merke batean egingo ditugu. Beraz, dena ez dugu erosi behar; guk geuk asko egin dezakegu.

Zer material da erabilgarria jostailuak egiteko? Jogurt-potoak, kartoizko kaxak...?

Lana hasi aurretik, materialen aukeraketa bat egiten dut. Tetrabrikak oso erabilgarriak izan daitezke, guztiz garbi baldin badaude, baina nahiko zaila izaten da hori. Latak eta beirak arriskutsuak izan daitezke haurrentzat, eta, beraz, bazterrean uzten ditut. Aukera handiak ditugu, eta erraz topatzekoak ere bai: tapoia, komuneko tu-

tuak, jogurt-potoak, plastikozko ur-botilak, arrautzontziak, izozkien koilaratxoak...

Haurrentzat, esperientzia ederra izango da xaboi-poto bat jostailu bihurtzea, ezta? Eguneroko tresnei bestelako bizi bat ematea... Jostailuekin jolasteaz gain, jostailuak egiteko prozesua bizi dezakete haurrek. Zer garrantzi du horrek? Nola bizi izaten dute prozesua beraiek?

Askotan, nagusiok emaitzarekin bakarrik gelditzen gara. “Zer auto polita!” esanez bukatzen dugu; baina, nire ustez, hori baino askoz aberasgarriagoa da autoa egiteko prozesu guztia.

Zenbat ideia pasatu dira umearen buru-





tik, materiala hartu duenetik autoa amaitu arte? Zenbat gozatu du? Zenbat aldiz jarri eta kendu ditu piezak? Zenbat hipotesi... Zenbat gaitasun landuta...

Hasieran, haurra ez da prozesuaren balioaz jabetzen bere jostailua egiten ari denean. Emaitza du helburu. Baina, behin baino gehiagotan egiten baditu horrelako ekin-tzak, pixkanaka, bera bihurtuko da protagonista, eta seguru eskuragarri dituen materialekin buruan dituen ideiak aurrera eramateko gai izango dela, guk ezer esan gabe.

Zer-nolako bizitza hartzen dute jostailu horiek gero? Apalean gera ez daitezten, proposatzen duzu nola jolastu, zer abestirekin erabili, edo antzerkiren bat

egitea?

Lana (jostailua, txotxongiloa, apaingarrak..) bukatu ondoren, askotariko gauzak egin daitezke:

- Jolastu eta ondo pasatu lagunekin. Inolako jarraibiderik eman gabe, izugarritzko istorioak sortzen dira.

- Taldeka, bertso edo abestiren bat ikasi edo asma dezakegu.

- Antzerki laburrak egin ahal ditugu...

Agian, alderantzizko lana ere egin dezakegu:

- Ipuin edo antzezlan bat aukeratu, eta bertako dekoratuak, pertsonaiak eta beharrezkoak duguna birziklitzeko materialarekin egin.

Dena den, garrantzitsua norberak

egindako lanak gauza askotariko balio duela konturatzea da.

Zer adinetako haurrentzat dira jostailu horiek?

Birziklitzeko materialak manipulatzeko, edozein adin da egokia; baina, zenbat eta nagusiagoak izan, gero eta lan konplexuagoak lor daitezke. Dena den, nik planteatzen ditudan ekin-tzak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko umeentzat dira bereziki. Teknika errazak erabiliko ditugu, eta bakoitza izango da bere lanaren sortzailea, ez gu. Nagusiok ikasi egin behar dugu umeari laguntza ematen baina haien lana egin gabe; orainoan, gu laguntzaileak baino ez gara izango.

Ibon DE LA CRUZ

Besteak sendatzeko ahaleman

“Nahiz eta gizakia oso konplexua izan, oreka lortzeko behar ditugun gauzak oso gutxi dira, eta eskuragarri ditugu”



Ibon DE LA CRUZ

PSIKOLOGOA

Egunero hainbat eta hainbat arazo ikusten ditugu gure baitan eta besteengan. Medikua edo psikologoaren esku-hartzea beharrezkoa dela uste dugu.

Baina hori ez da beti horrela: hainbat eta hainbat arazotan badugu zereginik. Irakasleak garenez, are gehiago.

Badira hainbat ezaugarri eta teknika, eskuragarri daudenak denontzat, geure bizitzan edota besteekin erabiltzeko. Bere emaitza positiboak behin eta berriro frogatu dira.

Hasieran, geure begirada zorroztu egin behar dugu, eta, pixka bat praktikatu gero, izugarritzko gauzak ikus ditzakegu. Ez da hain zaila: zer begiratu behar dugun jakin behar dugu.

Bigarren pausoa: zer behar den jakin. Egia esateko, nahiz eta gizakia oso konplexua izan, oinarri-oinarrian oreka lortzeko behar ditugun gauzak oso gutxi dira, eta eskuragarri ditugu.

Ideiak argi eta garbi izatea funtsezkoa da, eta ideia horiek oso logikoak dira. Ikusi-

ko dugunez, lehendabizi egonezina sentitzen dugu, eta gero, gizarte egoera edo krisia dela uste dugu.

Baina bakoitzak badu bere baitan behar dituen tresna guztiak.

Eta azkeneko pausoa, trebeziak lortzea da. Emozioak aldatzea lan polita da, baina gauza guztiak bezala, teoria ederra izatea ez da nahikoa. Praktikatu egin behar dugu, trebezia horiek automatikoki erabiltzeko. Eta ikasketa-prozesu hori oso dibertigarria izan daiteke.

Mesedez, ahantz ditzagun auto-laguntza talde negartiak. Badaude prozesu dibertigarriak, ilusioz beteak, beste ikuspegi berriak sortzen dituztenak.

Ez dugu mundua aldatuko, noski, baina gure ingurua hobetuko dugu.

Zer gertatuko litzateke jende guztiak gauza bera egingo balu?

Alvaro BEÑARAN ARANZABAL

Psikomotrizitatea



Alvaro BEÑARAN

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOAN LIZENTZIATUA,
ACOUTURIER PRAKTIKAKO PSIKOMOTRIZISTA

Eskoletan zenbait haurren azaltzen ari diren “sintoma berri”-etara

“Eskoletan entzuten dugu portaera zailak dituzten haurrak azaltzen ari direla”

psikomotrizitatearen ikuspuntutik hurbilketa bat egitea da ikastaro honen helburua. 0-6/8 urte arteko haurrekin lan egiten dutenentzat dago bereziki zuzendua, baina baita gaur eguneko zenbait hauren sozializazio zailtasunak ulertzen saiatu nahi dutenentzat ere. Ulertzen saiatu, gure erantzun pedagogikoak egokitzeko. Gaur egun, eskoletan, behin eta berriro entzuten dugu oso portaera zailak dituzten haurrak azaltzen ari direla:

- Frustrazioa jasan ez duten haurrak.
- Moldatzen ez dakiten haurrak.
- Nahi dutena egiten saiatzen diren haurrak, beti berea lortzeko asmoz.
- “Sintomak” azaltzen dituzten haurrak: ez hitz egin, ez egin, kasketak, eskolara joan nahi ez izan, somatizazioak, kideekin zailtasunak...

Ikastaroan zehar hausnartu eta ikusiko dugu zerk eragin ditzakeen halako portaerak, eta nolakoak diren gure jarrerak horien aurrean. Zer familia motakoak dira haur horiek?

Nerea MENDIZABAL

Eguneroko gatazkei nola erantzun bortxakeriarik gabe?

“Tamalez, lehiatzera, epaitzera, eskatzera eta diagnostikatze- ra bideratutako eredu eta patroiekin hezi gaituzte gehienok”



Nerea MENDIZABAL

PSIKOPEDAGOGOA, KOMUNIKAZIOAN ADITUA

“Jaso logela! Itzali telebista! Mugitu, berandu goaz!”.

“Utzi aldamenekoarekiko solasa! Ixo, eta hasi lanean! Laguna ez da jo behar! Niri ez hitz egin tonu horretan!”.

Sarritan, guraso eta hezitzaileok gauza bera ehun aldiz esaten dugulako inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen. Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu ezer debekatzeko orduan, exijitzeko orduan... “Ez” esatea kosta egiten zaigu edota gehiegitan esaten dugu.

Autoritarismoak (“nik esaten dudalako, eta kito, bestela...”) edo dena uzteko joerak (“dena aske duzu, eta egin nahi duzuna”) haurraren zer eragin izan dituzten ikusi ondoren, zigorraren, xantaiaren eta mehatxuen aurrean, beste aukera batzuk badaudela erakutsiko du Nerea Mendizabal psikopedagogoak ikastaro honetan. “Gehienok gure harremanen kalitatea hobetzeko gaitasunak eduki nahi ditugu. Tamalez, lehiatzera, epaitzera, eskatzera eta diagnostikatze bideratutako eredu hezitzaileekin eta patroiekin hezi gaituzte gehienok, oso gaztetatik; aurreiritziak erabiltzera eta giza harremanetan “ondo” edo “gaizki” dagoe-na adieraztera bideratu izan gaituzte, moral aldetik. Horretaz ohartzen eta baliabideak eskuratzen ikas dezakegu, guri gertatzen

zaiguna adierazteko eta besteari gertatzen zaiona entzuten ikasteko”.

Marshall Rosembergen ‘komunikazio ez bortitzaren eredu’ aurkeztuko du ikastaroan. “Rosembergekin eraiki duen ereduaren helburua ez da jendearen izaera edo gurea aldatzea, ez eta besteen jokaerak eta gureak aldatzea ere, gure bidea lortzeko; zintzotasunean eta enpatian oinarritutako erlazioak eraikitzean datza; horrela, lehenago edo geroago, kontuan hartuko dira denon beharrak.

Oso prozesu konkretua da, edozer gauza adierazteko eta entzuteko guretzat oso baliagarriak izango diren pauso zehatzak ditu. Indarrak berreskuratzen, elkarren arteko konexioa lantzen eta bakea lortzen lagunduko digu horrek”.

Zigorraren, xantaiaren eta mehatxuen alternatibak azalduko ditu Mendizabalek: “Eraginkorrena haurrak jokaera ‘desegokiarekin’ zer esan nahi digun ulertzea da, eta, horretarako, prozesuak halako arrasto batzuk ematen dizkigu: beharrak beteta edo bete gabe izatea da jokaera edo emozio guztien eragilea. Behar horiek identifikatuz eta ezagutuz gero, aukera onena kontuan hartuko duen modua diseinatuz gero, jokaera

edo emozio horiek ez dute modu horretan azaldu beharrik izango”.

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoen bidez, gurasoek eta hezitzaileek eguneroko egoerak aztertu eta sakonduko dituzte. Eta honako gai hauek ere landuko dituzte:

- Gure ikasleak/ seme-alabak gustatzen ez zaigun zerbait egiten edota esaten duenean, nola esan benetan entzuteko? Zein muga jarri? Zer da autoritatea?

- Gure ikasleak/ seme-alabak arazo bat duenean, nola lagundu? Zergatik eta nola entzun? Nola lagundu, modu progresiboa, bere arazoak konpontzeko gai izan eta geroz eta autonomoagoa izan dadin?

- Bere jokabidea onartzen ez dugunean eta gurekin ez duenean ezer jakin nahi, nola konpondu arazoa inork sufritu gabe? Nola egin zu errespetatua izateko, aldi berean, haurra errespetatuz?

- Gure ikasleak/ seme-alabak beraien artean borrokatzen/ haserretzen direnean. Esku-hartu behar da ala ez? Nola egin bitartekari lana, ulertzen lagundu eta pixkanaka beraien arazoak konpontzeko gai izateko?

- Nola lagundu gure ikasleak/ seme-alabei pixkanaka-pixkanaka autonomiaren eta euren arrakastaren bidea aurkitzen.



Marina PINTOS

Yoga eta kontzentrazio-teknikak

“Irakasle izatea ez da lan erraza, ikasleen kontzentrazio eza, dispertsioa, motibazio falta eta emozio aztoratuak baitaude”



Marina PINTOS
YOGA IRAKASLEA

Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen irakatsiko du Marina Pintosek ikastaro honetan.

Ibilbide luzea egin du irakasleei nahiz hurrei yoga irakasten. “Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispertsioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desagokiak eta abar presente baitaude”.

Horrek guztiak irakasleen osasunean eragin dezakeela ikusi du Pintosek, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu eta gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotu (urduritasuna, lo egiteko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura,

depresioa, eta abar). “Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeratuta daudenez, haien kontzentrazioa handitu egiten dute, lasaitasuna ezartzen, adimenaren gaitasunak bizkortzen, portaera hobetzen eta ikasketarekiko jarrera baikorra eragiten”.

Arnasketak nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenez jardun eta teknika hauek behar diren momentuetan erabiltzen irakatsiko du eta adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ere ikasi ahal izango dira, teknika horiek ondoren, hezitzaileek euren ikasleekin landu ahal izateko. Erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ere irakatsiko du.



Mirari PEREZ GAZTELU

Ahotsaren erabilera egokia

“Urtetik urtera ahotsa osasuntsu mantentzea zailagoa egiten zaigu”



Mirari PEREZ GAZTELU
MEDIKU-FONIATRA

Ahotaa lan-tresna dutenentzat interesgarria da ahotsa zer den jakitea, ahotsaren ohiko osagaiak ezagutzea, ahots mintzatua egoki erabiltzen ikastea, norberak bere ahotsa ezagutzea, ahots osasuntsuak eta patologikoak bereiztea edota prebentzio mekanismoak ulertzea. Horretan jardungo da mediku-foniatra eta AransGiko Zuzendari Medikua. “Ahots mintzatua egoki erabiltzea zenbait lanbidetan nahitaezkoa dela badakigu, baina urtetik urtera ahotsa osasuntsu mantentzea zailagoa egiten zaigu. Ohitura desegokiak eta lagungarriak ez diren inguruneek gure ahots kalitatean dituzten eraginak ez nabaritzea, norberak bere ahotsa ez ezagutzea eta teknikoki nola hobetu ez jakitea... ahots arazoa

agertzen laguntzen duten faktoreak dira”. Irakaskuntza munduan bereziki, urtetik urtera disfonia kasuen kopurua handitzen ari dela ikusi du medikuak. “Arazoari aurre egitea eta prestakuntza egokia izatea ezinbestekoak dira ahotsa osasuntsu erabili ahal izateko”. Horretarako, ahotsa sortzeko eta aldatzeko behar ditugun mekanismoak ikasi eta praktikatuko ditu ikastaroan (arnasketa, koordinazioa, erlaxazioa, ahoskera, inpostazioa...). Disfonia zer den, nola antzeman, agertu ondoren zein bide jarraitu eta zeintzu diren prebentzio neurriak irakatsiko ditu. Ahotsa egoki erabiltzeko burutu behar diren ariketak eta zenbait aholku teoriko-praktiko eskainiko dira.

Joxe AMIAMA

Etixerako lanak gure eskoletan



Joxe AMIAMA
EHU-KO IRAKASLEA

“Zer pentsatzen dute irakasleek, ikasleek eta familiek etxerako lanei buruz?”

honetaz?”, gisa horretako galderei erantzun die Joxe Amiamak bere doktorego tesian. Izan ere, azken bolada honetan gure komunikabideetan etxerako lanen gaia maiz azaldu da, irakurketa desberdin batzuk azalduz. Formazioan, etxeko lanen inguruan dauden elementuei buruz hausnarketak bat egitea proposatuko du Amiamak.

“Ezin dugu ahaztu eskolako errekurso arrunt hau sistema batean (eskolan) diseinatzen dela, askotan beste sistema batean egiteko (familian).

Honengatik, eta gure ume eta gazteengan koste handirik izan gabe, bi agente hezitzaile hauek harremanetan egon behar dute ikasleen helburu eta kompetentziak lortzeko”. Etxerako lanei buruz hainbat puntu ezagutaraziko ditu, eta eskola mailan erabiltzen diren estrategiak konpartituko dira ikastaroan, irakasleen didaktikan daukan garrantzia baloratuz. Doktorego tesian jaso dituen datuak eta hausnarketak hurrengo *bik hasi*-n azalduko ditu.

“Eskolako denbora: noiz bukatzen da eskola?”. “Etxerako lanak eta bere funtzionaltasuna: zer pentsatzen dute irakasleek, ikasleek eta familiek gai

galdeidazue

Bizitzako lehen uneetako masajeak nola lagun diezaioke haurrari ondoezak prebenitzen



Munduko leku eta kultura askotan landu izan da masajea, interakzio gisa, haurren gorputza aktibatzeko tresna gisa. Haur-masajea aspaldidanik praktikatu izan dela ohartu dira mendebaldar asko, egin dituzten bidaietan; adibidez, Nigerian, haurrei egunean bitan masajea ematen zaie beren bizitzako lehenengo urtean, eta alabek beren amengandik jasotzen dute antzinako ohitura hori.

Bielorrusian, ospitaleetako eta amatsun-zentroetako erizainek masajea ematen diete jaioberriari, batez ere, garaia baino lehen jaiotakoei, heriotza-tasa murrizteko. Amek haur-masajeari buruzko trebakuntza praktikoa jasotzen dute, ospitalean dauken bitartean.

Kultura primitibo askotan ere, oso ohikoa da haurra amaren gorputzari atxikita eramatea.

Europar, eragin handia izan dute Frederic Leboyer-en *Shantala* liburuak eta bideoak, Indiara egindako bidaiaren ondoren argitaratutakoak.

Espereintzia horiek eta beste batzuek beldurrik ez dugula izan behar erakusten digute; masajearen praktika oso antzinakoa da, gure arbasoak ere intuizioz jabetu baitzi-



Joxe Ramon MAUDUIT
PSIKOLOGOA, PREBENTZIOAN ADITUA
DEN PSIKOTERAPEUTA REICHIANOA

ren haurrengan eragin onuragarriak zituela. Gainera, gure haurrak nola uki eta laztan ditzakegun ikasteko aukera ematen digute.

Euskadiko hainbat lekutan, hala nola Urnietan, Usurbilen, Tolosan eta beste herri batzuetan, osasun-zentroko emaginek eta erizainek masajea lantzen dute amekin, erditu ondoren.

Freud, ikerkuntza terapeutikotik abiatuta, haurtzaroko traumak helduaroan zuten eraginaz ohartu zen, eta Reich-ek, trau-

mei zuzenean gorputzean behatu ondoren, umetoki barneko korazaren garrantzia azpimarratu zuen. Eta, ariketa xume baten bidez, jaio orduko haur batzuek beren diafragman estutasuna eta larritasuna dutela erakutsi zigun: haurrak gure sorbalda paretik gora jasotakoan, batzuk negarrez hasten ziren, eta beste batzuei, berriz, izugarri gusatzten zitzaien, eta errepikatu egin nahi zuten. Gure gorputzaren goiko eta beheko alde bereizten dituen gunean, hau da, diafragman, larritasuna eta izu-ikara eragiten dituen uzkurdura bat gertatzen dela ikusarazi zigun. Psikomotrizitatearen ildotik, babesik gabe, kontuan hartu gabe edota konfiantzarik gabe sentitu izan dela adierazten digu horrek.

Haurtzarotik gure hedatze-gaitasuna, gaitasun autoerregulatzailerak, mugatzen joan daitekeela ulertarazi zigun horrek, eta bizitzaren lehen unetik horri aurrea hartzea posible dela eta horixe dela, hain zuzen, egin behar duguna.

Thomas Harms-ek haur-masajearen alderdi bioenergetikoez hitz egiten digu: "Txeraz emandako masaje batek hedatzea eta irekitzea bultzatzen du, hau da, organismoaren funtzionamendu parasinpatikoa

sustatzen du. Horrela, lasaitzeko eta uzkur-tasun-egoeratik irteteko gonbita egiten zaio. Gorputzaren kontaktu horren kalitateak ezinbesteko garrantzia du, masajea eraginkorra izan dadin. Kontaktu hotz eta mekanikoak eta kontaktu txeratsu eta sakonak bereizi behar ditugu. Beharrezkoa da haurraren eta masajea ematen ari zaionaren artean lotura emozional bat sortzea, maila energetiko sakonenetan eragiteko.

Haurraren mugimenduak gero eta geldiagoak eta lasaiagoak izango dira, eta lasaitze-erreakzioa hasi dela adierazten du horrek, horixe baita berorren ezaugarri nagusia. Zentratuago ikusiko dugu, bere gorputzarekin hobeto konektatuta. Mugimenduek adierazpen harmoniatsuagoa izango dute, irekiagoak dira. Masajea amaitzen denean, haurra bigunago dago, malguagoa, eta emozionalki gertuago dagoela esan daiteke.

Izan dituen bizipen mingarriengatik bere sistemaren barnean babestu den haurra da korazadun haurra. Egoera hori masajeekin konpon daiteke, bere inguruarekiko interesa nola berreskuratzen duen eta haurren zentzumen-kanalak nola irekitzen diren ikusiko baitugu. Ordura arte agian ihes egiten zion begi-kontaktua berreskuratuko du. Masajeak energia-fluxua irekitzen du begien norabidean. Arreta oso erraz galtzen zuten haurrak eta beren erara zebiltzanak zentratu egiten dira, energia biologikoak barnerantz bideratuz, eta beren gorputzera zuzentzen dute arreta.”

25 urte haurrei masajeak ematen

Hazi Hezi prebentzio-zentroan, hasiera batean masajearekin gurasoak haurraren hurbiltzea ere lortu nahi genuen, eguneroko ohiturak eta komunikazioa bultzatzeko eta elkarrekiko erregulazioa lortzeko lotura handiagoa izan zezaten. 25 urte daromatxagu zeregin horretan, eta, denboraldi horretan, hainbat modutara landu behar izan ditugun egoerak sortu dira, eta masajearen bidez esku hartzeko moduan ere aldaketak txertatu ditugu.

Xavier Serranok heltze-prozesuari eta korazaren osaketari buruz egindako ekarpenak ere kontuan hartzen ditugu. Haurra umetoki barnean bizi denean, jaiotzeko unean edota jaio ondorengo lehenengo egunetan has daiteke erazten koraza, eta begietan, ahoan, lepoan eta diafragman nabarmentzen da hori.

Beraz, jaio bezain pronto ematen diogu masajea haurrari, komunikazioa eta elkarren arteko lotura sustatzeko; baina, batez ere, haurrak egoera zail edo estresagarria bizi izan duenean ematen diogu (zesarrea, forzepsa, espatulak, epidurala, neonatologian ospitaleratzea, banantzea, etab.), bizi izandako estutasun hori kroniko bihurtu ez dadin.

Horrek detektatu beharrekoak garaiz detektatzeko eta garaiz esku hartzeko aukera ematen digu, eta haurraren lehenengo hiru urtean prebentzioz gurasoen eta haurraren arteko erregulazio eta sintoniaren jarraipen bat egiteko oinarriak emango dizkigu.

Thomas Harms-ek haur-masajearen alderdi bioenergetikoez hitz egiten digu: “Txeraz emandako masaje batek hedatzea eta irekitzea bultzatzen du, hau da, organismoaren funtzionamendu parasinpatikoa sustatzen du. Horrela, lasaitzeko eta uzkur-tasun-egoeratik irteteko gonbita egiten zaio.



Irakasleen beharrak

2013an, hamar urte beteko dira Hik Hasi-ekin batera haur-masajeko ikastaroa ematen hasi nintzenetik. Ordudanik, urte batean izan ezik gainerako guztietan Haur Hezkuntzako irakasleekin lan egin dut, eta, beren beharrak zeintzuk ziren galdetzean, honako hauek azaldu zituzten, besteak beste:

-Haurrarekin kontaktuan izan beharreko jarrera azpimarratzen zuten. Beren lane-



Eguneroko bizitzan, estres-sentsazioa zuten [irakasleek]. Gurasoek haurra ikastolara eramaten zute- nean, oso den-



borra gutxi izaten zuten
haiekin egoteko, eta,
beraz, haurra etxean nola
ikusten zuten jakiteko eta
haurrak gurasoekin zuen
harremana ezagutzeko
informazio gutxi zuten



an, haurren beharren arabera bideratutako halako aurretiazko joera bat zehaztuta ez zutela ohartzen ziren. Estresak sortutako gorabeheren arabera jokatzeko zutela zioten gehienek.

-Heltze-prozesua ezagutzeko beharra sentitzen zuten, haurraren aurrean nola egon behar zuten jakiteko. Hezitzaileak izateko prestatu zirela zioten, eta 0-3 urteko etapa honi ez zegokiola zeregin hori; ohar-tzen ziren haurrari heltzen laguntzea zela beraien zeregina, eta horretarako informazioa falta zitzaizela zioten.

-Nahiz eta haurrak elkarrengandik oso desberdinak zirela jabetu, ez zuten haurren sentimenduak ulertzeko tarterik hartzen. Egin zuten ariketa baten bidez, jabetu ziren begiratzen ez zuten umeak zeudela, eta geldirik egoten ez zirenak, eta hori ez zela haien izaeratik gertatzen ikusi zuten, zerbait gertatzen zitzaielako baizik.

-Eguneroko bizitzan, stres-sentsazioa zuten. Gurasoek haurra ikastolara eramaten zutenean, oso denbora gutxi izaten zuten haiekin egoteko, eta, beraz, haurra etxean nola ikusten zuten jakiteko eta haurrak gurasoekin zuen harremana ezagutzeko informazio gutxi zuten. Horrela, irakasleek ere haurrei arreta handiagoz behatzeko eta, beraz, haurren beharrei hobeto erantzuteko interesa galtzen zuten.

Azken puntu hori oso mingarria irudi-

tzen zait, hiru urtera arte haurrak, amarekin ez bada, segurtasuna eta egonkortasuna emango dizkion erreferentziako beste norbaitekin egon behar baitu, garunaren heldutasunerako oso garai kritikoa baita.

Aurrez azaldutako guztia kontuan hartuta, haurrentzako masajeak irakasleentzako oinarritzko hiru behar nagusi nabarmentzen ditu, eta horietatik izango dira, hain zuzen, hiru egun hauetan landuko ditugunak:

- **Informazioa**, hau da, neurozientziak haurren garapenari buruz eta lehenengo hiru urte horietan ongi antolatutako garuna garatzeko nerbioen loturek duten garrantziari buruz esaten diguna.

- **Jarrera**, hau da, heldu baten eta haur baten arteko zeharkako harremanaren zergatia, eta erreferentziako pertsonaren garrantzia.

- Ukitzen jakitea, edo "UKITU" masajea nola eman:

- **0 urtetik 3 urte bitarteko haurrentzako masajea:**

- Elkarren azalak ukitzeko beharra.
- Azalaren muga sentitzeko beharra.
- Azalaren azpian gorputz osoa sartzeko beharra.

· Hori guztia haurraren erritmoa eta beharrak errespetatzen dituen pertsona baten bidez sentitzeko beharra; heldutasun zefalo-kaudalaren nahiz kaudo-zefalikoaren prozesuan dauden organoen edo zatien

funtzionamendua eta azala estimulatuko ditu horrek.

- **Masajea komunikazioaren modulatuak estimulatzeko bitarteko gisa:** zentzumen guztiak: ikusmena, entzumena, azala, zentzumen vestibularra, propiozepzioa, etab. Eta mimika, ahotsa, alaitasuna, etab.

· Erditze traumatiko baten ondorengo **masajea**.

· **Masaje** reichiano deritzona, zefalo-kaudala.

· Shantala **masajea**, kaudo-zefaliko.

· Oinen erreflexu-puntuetakoa **masajea**.

- Masajea eta berezko mugimendua lehenengo egunetik.

- Masajea lehenengo 4 hilabetean.

- Masajea 4. hilabetetik 12-18. hilabetera arte.

- Masajea eta berriro segurtatzeko mugimenduak urtebetetik hiru urtera bitartean.

- Baldintza egokiak giro lasaia sortzeko; haurren beharrei laguntzeko heldua ongi sentituko den leku bat, ukitzeko eta ukitua izateko esperientzia bizitzeko; eta bestearen erreakzioen arabera eta **elkarrizketa tonikoan oinarrituta**, aldatzen joateko aukera emango duen giro bat.

JOLAS EGINEZ SENTIMENDU ETA BEHARRAK AURKITZEN

Zure ETA nirearen bila!



SARRITAN GERTATZEN ZAIGU:

- "Pazientzia agortzen zait!
Zergatik ez du kasurik egiten?"
- "Etsita nago egunero
gatazkekin! Ez dut gustatuko
litzaidakeen harmonia eta giro
ona lortzen!"
- "Nola azal dezaket gustatzen
zaidana, saririk eskaini gabe?"

ZERTAN LAGUN GAITZAKE?

- Ondo pasatzen
- **Komunikaziorako giroa**
errazten
- Gu geu eta besteak hobeto
ulertzen
- **Adimen emozionala eta**
erlazionala bultzatu eta
zaintzen
- Irtenbide eraginkorrak
bilatzen



hartueman
Nerea Mendizabal
psikopedagogo

Informazioa eta
proposamen gehiago
www.hartueman.com

atzeko atetik



**Mirari
BERZIARTUA AROTZENA**

Coaching aldaketa

Hezkuntzaren zentzua, euskaldun izaten jarraitzeko, geuretik egin eta geuk bermatzea: “gu, geuk, geuretik”

Euskaldunok geure burujabetzaren aldarria oihukatzen ari garen garaian, hezkuntzan zenbaitek erabiltzen duten ikuskera harri garria egiten zait. Herrietako hormetan politikan eta ekonomian burujabetza aldarrikatuz kartel handiak ipintzen ditugun une berean, hezkuntzan, hori alde batera utzi eta politikatik aparteko ikuspegiak azpimarratzen dira. Jabea nor den alboratuta, kalitatean oinarritu eta aukera guztiak bateratzen. Desberdina litzateke, helburu berberaren inguruan jendea bateratzea, norbere erabakiz eskutik eramaten konprometituz.

Bakarrik ikuskera pedagogikoa eta kalitatezkoa azpimarratzen da hitzetik hortzera. Berdin al da euskaldunontzat, gure identitatearen transmisioa eta garapena geuk zaintzea eta espainiarrak edo frantziarrak erabakitzea? Haiei aldarrikatuz lortzeko asmotan al gabiltza?

Geuk egin, geuretik, subjektu politiko “bagina bezala” jokatzeko, menpekotasuna astintzeko estrategia eraginkorra izaten ari da hainbat kolektiborentzat. Hori egin du ikastolarekin euskal gizarte zibilak ehun ur-

te hauetan. Beste zerbait da aurkaria dugun jabearen zerbitzua aldatzera dedikatzea. Biak al dira estrategikoak Euskal Herria eraikitzeko? Kalitate kontua al da gure hezkuntza arazoa? Kalitatezko alderdi politiko edo sindikatuak lortuz geure propiorik ez al dugu behar? Wertek kalitatezko eskaintza egiten badu—gainera, euskara erabiltzen uzten duena—hori al da gurea?

Politikatik aparteko hezkuntzarik ez dago. Geure hezkuntzari heltzea, kalitate kontua baino zerbait gehiago da. Izaten jarraitzeko behar duguna da. Beraz, eskubide izateaz gain erantzukizuneko determinazioa da. Edozer bide ez da estrategikoa eta estatuek inposatutako ezaugarrietatik burujabetzera aldaketa emateak, guztioi eta bakoitzari aldaketa sakonak eskatzen dizkigu.

Burujabetzaz serio ari bagara, bizitza osoari dagokiola ulertzen dugu edo ez dago burujabetzarik. Hezkuntzan bereziki estrategikoa, gu nor garen eta herri eskarmentuaren transmisioa eta garapena geuretik egiteko, geuk erabakiak hartuta bermatzeko.

Horretarako, euskal gizarte zibilak ipini

zuen martxan geure hezkuntza propioa den ikastola proiektua eta, ehun urtera, euskal gizarte zibila euskal curriculumaren erronkari geure eskutik aurre egiten ari gara. Eta horrek poz handia ematen du.

Argi izan behar dugu hezkuntzan, gure ekintza guztien zentzua euskalduntasuna iraunkortzeko dela. Geu izaten jarraitzeko. Eta hori geuk egin beharrekoa da. Bizikletan bezala: manual gutxi eta praktika asko. Horrek egunerokotasunean, inposatzen zaigunaren gainetik, geurea egiten konprometitzea eskatzen du.

Horretan ari gara, burujabetzara eramaten duten printzipioetan oinarritzen eta gure jardunaren estiloari ezaugarri berriak ezartzen bost kompetentzietan arduatuz guztia. Norberarengandik aldaketa egiten trebatzea ez da erronka makala. Hori da euskal curriculumak eskatzen diguna. Gure herriari, eta geure ikasleei aldaketa zor diegu, izaten jarraitzeko euskalduntasuna etengabe bizi-berrituz, “gu, geuk, geuretik”.




HARPIDETU ZAITEZ ABANTAILA HAUEKIN!

- ✓ URTEAN 10 ALE ZURE ETXEKO POSTONTZIAN
- ✓ KLUBEKO BAZKIDE TKARTELA ETA PULTSERA
- ✓ IRRIEN LAGUNAK PRODUKTUETAN DESKONTUAK ELKAR DENDETAN ETA WBGUNEAN
 - ✓ DESKONTUA ZERAINGO IRRIEN LAGUNAK ATERPETKEAN
 - ✓ BAZKIDEENTZAKO TOTKETA BEREZIAK
 - ✓ KLUBEKO 'IRRIKITA' BAZKIDEENTZAKO KATALOGOA

HARPIDETU ABUZZTUAK 31 BITARTE
ETA JASO KLUBEKO ALBORNOZA
ONGI ETORRI OPARI GISA!



HARPIDETZEKO: Telefonoz 902 820 806 zenbakira dei eginez
edo webgunean www.irrienlagunak.com/harpidetza





‘Familia eta eskola’ jardunaldiak urrian

Urtero bezala, aurtengo udazkenean ere, Haur Hezkuntzakoentzako jardunaldiak antolatuko ditu *hik hasi*-k. Eskolaren eta familiaren arteko harremanak, atxikimendua, egokitzapenak eta abar aztertuko dira.

1. Myrtha Chokler izango da jardunaldietako hizlari nagusia:

- Haurren garapen osorako, harremanetan kontuan hartu beharrekoak.
- Harreman pertsonalak heziketa zentroan.
- Hezitzaileen eta familien arteko harremanak.

2. Euskal Herriko ikastetxeetan egiten ari diren hainbat esperientzia praktiko.

Urriaren 18an Durangon eta 19an Donostian

Informazio osoa eta izena emateko aukera, iraillean,
www.hikhasi.com helbidean

